PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN BALDINTZA AGIRIA, LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKOA, ESKOLAKO AGENDA 2030 ETA HIRI HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATZEKO EKINTZAK DINAMIZATZEKO ETA, HORREKIN BATERA, UROLA KOSTA ESKUALDEKO IKASTETXEETAN KONPOSTA EZAR DADIN BULTZATZEKO, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN LURRALDE EREMUAN

AURKIBIDEA

I. TITULUA.- ALDERDI OROKORRAK 2

1. KONTRATUAREN XEDEA 2

2. LURRALDE EREMUA 2

3. 2024-2026 IKASTURTEAN ZARAUTZ, ZESTOA ETA ZUMAIAKO IKASTETXEETAN ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA 2

4. HIRI HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATZEKO EKINTZAK DINAMIZATZEKO ZERBITZUA ETA UROLA KOSTA ESKUALDEKO IKASTETXEETAN KONPOSTA EZAR DADIN BULTZATZEA 2023-2024 IKASTURTEAN 6

II. TITULUA. LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA LANEN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA 9

5. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK 9

6. DOKUMENTUAK AURKEZTEA 9

ERANSKINAK

1. ERANSKINA. 2022-2023 ETA 2023-2024 IKASTURTEETAKO ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMAREN MEMORIAK

2. ERANSKINA. GIDA PRAKTIKOA, ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMAREN UDAL DIMENTSIOA

3. ERANSKINA. 2022-2023 ETA 2023-2024 IKASTURTEETAKO ZISARE PROGRAMAREN MEMORIAK

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN BALDINTZA AGIRIA, LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKOA, ESKOLAKO AGENDA 2030 ETA HIRI HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATZEKO EKINTZAK DINAMIZATZEKO ETA, HORREKIN BATERA, UROLA KOSTA ESKUALDEKO IKASTETXEETAN KONPOSTA EZAR DADIN BULTZATZEKO, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN LURRALDE EREMUAN

I. TITULUA.- ALDERDI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Laguntza teknikoa kontratatzea Eskolako Agenda 2030 programa dinamizatzeko eta garatzeko, hiri hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzeko ekintzak dinamizatzeko eta 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteei dagokien aldian Urola Kosta eskualdeko ikastetxeetan konposta ezar dadin bultzatzeko. Eginkizun horretan, beharrezkoa izango da preskripzio teknikoen baldintza agiri honetan eta administrazio klausula partikularren baldintza agirian jasotakoa betetzea, bai eta Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoaren jarraibideek diotenari kasu egitea ere. Kontratuaren adjudikaziodun suertatzen denak, era berean, nahitaez bete beharko du eskaintzan adierazitakoa.

2. LURRALDE EREMUA

Kontratu honen xede diren zerbitzuen lurralde eremua Urola Kostako Udal Elkarteko udalerri guztiak izango dira.

II. TITULUA. DESKRIBAPENA ETA LANAK EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

3. 2024-2026 IKASTURTEAN ZARAUTZ, ZESTOA ETA ZUMAIAKO IKASTETXEETAN ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA

3.1. Kontratazioaren xedea

Baldintza agiri honen xedea da ingurumen hezkuntzan espezializatutako enpresa bat kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea, 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetako Eskolako Agenda 2030 programa dinamizatzeko eta garatzeko, kontuan izanik 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetara ere luza daitekeela.

Eskolako Agenda 2030en helburua da hezkuntza komunitateak garapen jasangarriarekiko konpromiso egitura bat sortzea. Hori lortzeko, helburu espezifiko hauek bete behar dira:

- Ingurumen jakintza eta sentsibilizazioa lantzea tokian-tokian eta maila globalean, hezkuntza komunitatearen barruan.
- Ikastetxeetako eta udalerrietako ingurumen arazoak hautematea eta ezagutzea.
- Ikastetxearen eta udalerriaren jasangarritasuna hobetzea.
- Ikastetxearen eta udalerriaren edo eskualdearen arteko lankidetza indartzea.
- Ikasleei protagonismoa ematea eta partaidetzako eta esku hartzeko kultura sustatzea ikastetxeko eta udalerriko ingurumen kalitatean eragina duten gaietan.
- Curriculuma egokitzea garapen jasangarriak planteatzen dituen erronketara.

Eginkizunen artean sartzen dira, batez ere, ikastetxe bakoitzaren lana diseinatzea, prestatzea, aholkularitza eskaintzea, material didaktikoa idaztea, ondorioak ateratzea eta zabaltzea.

Horretarako, ingurumen hezkuntzako aholkularitza enpresa bat kontratatu behar da, lan horiek guztiak Berritzeguneek ezarritako jarraibideen eta esperientzien arabera egiteko.

Atxikita daude 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetako memoriak (1. eranskina).

3.2. Hartzaileak

Orientazio gisa, hamabi (12) ikastetxek parte hartu dute Urola Kostako Eskolako Agenda 2030 programan 2023-2024 ikasturtean.

Parte hartu duten ikasleen zenbatespenari dagokionez, taula honetan laburbiltzen dira datuak:

UDALERRIA	IKASTETXEA	IKASLE KOPURUA (guztira)
ZARAUTZ	ANTONIANO IKASTETXEA	546
ZARAUTZ	LA SALLE IKASTETXEA	672
ZARAUTZ	SALBATORE MITXELENA IKASTETXEA	910
ZARAUTZ	LIZARDI INSTITUTUA	390
ZARAUTZ	OROKIETA HERRI ESKOLA	450
ZARAUTZ	OTEITZA LIZEO POLITEKNIKOA	560
ZARAUTZ	MONTE ALBERTIA BHI	220
ZESTOA	CEP AIZARNA LHI	20
ZESTOA	CEP ARROA LHI	34
ZUMAIA	CEP OIKIA LHI	18
ZUMAIA	MARIA ETA JOSE IKASTETXEA (ZUMAIENA)	678
ZUMAIA	IES ZUMAIA BHI	366
GUZTIRA	12 IKASTETXE	4.864

Nolanahi ere, ikasle errealen zifrak desberdinak izateak —hemen adierazitakoen aldean— ez du izango eraginik lanen adjudikazioaren zenbatekoan. Era berean, adjudikazioaren zenbatekoa ere ez da aldatuko proiektuan azkenean parte hartzen duten ikastetxeen kopurua aldatzen bada, eta parte hartzen duten ikastetxeen artean banatu beharko da aurreikusitako dedikazio denbora.

3.3. Jardueren deskribapena

2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetarako, Garapen Jasangarrirako **12**. Helburua landuko da: **EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK**.

Proiektuaren metodologia berria kontuan hartuta —Berritzeguneek 2023ko ekainean emandako *Eskolako Agenda 2030en udal dimentsioa, Tokiko Agenda 2030ekin koordinatuta* gida metodologikoaren (2. eranskina) bidez aurkezten da—, bi ikasturteko zikloetan egingo da lana ikasleekin.

Kontratazioa luzatuz gero, bi ikasturteko beste ziklo bat egingo da, lehenengoaren egitura berari jarraikiz. Oro har, enpresa adjudikaziodunak eginkizun hauek izango ditu ikasturte bakoitzean:

1. ikasturtea:

- Udal eta eskualdeetako koordinazio bileretan parte hartzea eta bilerak dinamizatzea, aukera badago, Berritzeguneekin lankidetzan.
- Udal diagnostikoaren faserako aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburuari buruzko materialak lantzea eta esku hartzeko plana egitea.
- “Baliabideen katalogo” bat sortzea, ikasturte bakoitzean landutako gaiarekin lotutako dokumentazioarekin, tresnekin, esperientziekin eta abarrekin. Katalogo hori parte hartzen duen ikastetxe bakoitzaren eskura egongo da.
- Ikastetxeek udal diagnostikoari eta ekintza planari edo esku hartzeko planari buruz emandako datuak biltzea eta kudeatzea.
- Esku hartze plan bat definitzeko laguntza, Berritzeguneekin eta Udal Elkarteko zerbitzu teknikoekin koordinatuta.
- Ikasturte amaierako Eskolarteko Foroa eta Eskolarteko Udal Foroa antolatzea eta dinamizatzea, eta udalei luzatu beharreko proposamenak egiteko lanak koordinatzea, egindako diagnostikotik abiatuta diseinatutako esku-hartze planari dagokionez.
- Ikasturte amaierako memoria bat idaztea eta azken ebaluazioa egitea. Dokumentu horrek barnean hartuko ditu eskola eta udal arloko esku hartzeko plan gisa garatutako proposamenak, ikastetxeen iradokizunetatik abiatuta, baita ikastetxeok hartutako konpromisoak ere.

2. ikasturtea:

- Udal eta eskualdeetako koordinazio bileretan parte hartzea eta bilerak dinamizatzea, Berritzeguneekin lankidetzan.
- Aurreko ikasturtean zehaztutako ekintzen bidez ikastetxeko esku hartzeko plana aktibatzeko eta gauzatzeko laguntza, Berritzeguneekin eta Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoekin lankidetzan. Ekintzak ikastetxean ez ezik udalerrian ere egingo dira, ahal den neurrian.
- Udalei egindako proposamenen eta ikastetxeek hartutako konpromisoen jarraipena egiteko baliabideak prestatzea.
- Ikasturte amaierako Eskolarteko Foroa eta Eskolarteko Udal Foroa antolatzea eta dinamizatzea, eta udalei luzatu beharreko proposamenak egiteko lanak koordinatzea, egikaritutako esku-hartze planari dagokionez.
- Ikasturte amaierako memoria bat idaztea eta azken ebaluazioa egitea, barnean harturik esku hartzeko planaren laburpen exekutiboa eta balioespena.

Zehatzago esanda, enpresa adjudikaziodunak zeregin hauek izango ditu lehen aipatutako faseetako bakoitzean:

3.3.1. Diagnostikoa eta helburuak

Aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburuari buruzko eskola diagnostikoa egingo da, eta hiri diagnostikoa ikasleen ikuspegitik aztertuko da. Zehazki, ekintza hauek egingo dira:

- Hautatutako Garapen Jasangarrirako Helburuari buruz dagoen udal informazioaren laburpena egitea, aurkezpen erraz, atsegin eta didaktiko gisa, ikastetxe bakoitzean parte hartzen duten ikasleen adinera egokituta, irakasleek (dokumentazio espezifikoa) zein ikasleek (dokumentazio espezifikoa) gelan tratatu ahal izan ditzaten, eta, eginkizun horretan, metodologia bisual dinamikoenak eta interaktiboenak lehenestea.
- Bisita proposamen bat prestatzea, aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburuari buruzko diagnostikoaren datuak detektatzeko, identifikatzeko eta interpretatzeko.
- Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek udal diagnostikoa egiteko ereduak prestatzea, eta, horretarako, galdetegiak, datuak biltzeko taulak eta abar erabiltzea, ibilbideetan, bisitaldietan, inkestetan, eztabaidetan eta abarretan baliatu ahal izateko.

- Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek datuak biltzeko eta udal diagnostikoa egiteko lanak koordinatzea. Eginahal horretan, azken dosierra idatziko da, eta alkateari aurkeztuko zaio lehen ikasturtearen amaierako Eskolarteko Foroan, diagnostiko horrekin zerikusia duten ikastetxeen proposamenekin batera.

3.3.2. Esku hartzeko plana

Udaleko beste eragile eta zentro batzuekin lankidetzan parte hartzeko neurriak proposatuko dira, hiriko ingurumena hobetzeko Garapen Jasangarrirako Helburuei dagokienez. Zeregin hauek egingo dira:

- Aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburuei dagokienez, ahalik eta datu gehien bilduko dira: udal azterketak eta ekintza planak, garapen jasangarri komunitariorako proposamenak, abian diren jardunbide egokiak edo esperientziak, gaiari buruzko datu globalak eta abar.
- Lehen aipatutako alderdiak biltzen dituzten materialak eta dokumentazioa bildu beharko dira, eta ikasleen adinera egokitu, Berritzeguneek eskaintzen dituzten materialekin batera. Hala, ikastetxe bakoitzean barne lana dinamizatzeaz arduratzen diren pertsonei eskaini ahalko zaie, eta koordinatu eta sostengatu egingo du, orobat, haien lana.
- Bigarren ikasturtean, esku hartzeko ekintzak koordinatuko ditu.
- Gainerako eragileekin koordinatuta, Eskolako Udal Ekintza bakoitza gauzatzeko beharrezkoak diren xehetasunak ezarriko ditu: data, taldeak eta parte hartzaileen kopurua, beste kolektibo batzuk integratzeko aukera, erabili beharreko baliabideak eta balioetsi beharreko adierazleak.
- Udalekin koordinaturik jardungo du, eskola ekitaldiak gauzatzeko beharrezkoa dena lortzeko: baimenak, materiala.
- Koordinaturik jardungo du udalekin eskolarteko udal foroak antolatzeko orduan, ikasleek eta arduradun politikoek partaidetzan oinarrituriko interakzio hurbila izan dezaten.
- Esku hartzeko plana garatzen parte hartuko du.

3.3.3. Ekintza

Udalean aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburuarekin lotutako proposamenak gauzatuko dira. Zehazki, eginkizun hauek izango dira:

- Aztertutako Garapen Jasangarrirako Helburuari dagokionez, eskolarteko bisita interesgarri bat sustatuko du gutxienez: enpresa batera, bide publikoko espazio batera, administrazio edo udal elkarte batera, eta abarretara (bai eta haien instalazioetara ere).
- Parte hartzen duten ikastetxeek aztertutako Garapen Jasangarrirako Helburuari buruzko sentsibilizazio edo simulazio jokoak garatu ahal izateko behar duten materiala emango du.
- Ikasitako Garapen Jasangarrirako Helburuari dagokionez, jardunbide egokien kode bat egitea sustatuko du, bai eta parte hartzen duen ikastetxe bakoitzean hautatutako Garapen Jasangarrirako Helburuen Kudeaketa Plan bat egitea ere.

3.3.4. Komunikazioa

Hauek dira landu beharreko eginkizunak:

- Eskolako Agenda 2030 programaren garapena tokiko komunikabideen bidez hedatzeko behar den materiala prestatzea, gutxienez, programa garatzeko hiru unetan (lehen hiruhilekoan, bigarren hiruhilekoan eta hirugarren hiruhilekoan; azken kasu horretan, ikasturte amaierako udal eskola foroa egin aurretik).
- Zabalduko beharreko amaierako dosierra egingo du, laburbiltzen dituena ikasleek ikasturtean egindako lana eta ikasleek hartutako konpromisoak —eskolarteko foroan lehenetsiak—. Dosier horretan, halaber, ikasleek udalei proposatuko dizkieten ekintza proposamenen zerrenda jasoko da (ziklo bakoitzeko lehen mailan). Dosierra dibulgaziozkoa izango da (irudiak, argazkiak...) eta euskaraz idatziko da.
- Parte hartzaile guztien arteko harremana sustatuko da, bai eta material, esperientzia eta dokumentu guztiak hedatzea eta trukatzea ere.
- Une oro emango diete garatutako prozesuaren berri Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoei eta Berritzeguneetako koordinatzaileari.

3.3.5. Ebaluazioa

Prozesuaren ebaluazioari dagokionez, eginkizun hau izango da:

- Ziklo bakoitzeko lehen kurtsoaren kasuan, jarraipen txosten bat idaztea. Agiri horrek barnean hartuko ditu eskola eta udal arloko esku hartzeko plan gisa garatutako proposamenak, ikastetxeen proposamenetatik abiatuta, baita ikastetxeok hartutako konpromisoak ere.
- Ziklo bakoitzeko bigarren ikasturtearen kasuan, jarraipen txosten bat idaztea. Agiri horretan, esku hartzeko planaren laburpen exekutiboa eta balorazioa jasoko dira, barnean harturik ikastetxeek aurreko Udal Foroan udalei planteatutako proposamenetan oinarrituta hartutako konpromisoen jarraipena.

4. HIRI HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATZEKO EKINTZAK DINAMIZATZEKO ZERBITZUA ETA UROLA KOSTA ESKUALDEKO IKASTETXEETAN KONPOSTA EZAR DADIN BULTZATZEA 2023-2024 IKASTURTEAN

4.1. Kontratazioaren xedea

Baldintza agiri honen xedea da ingurumen hezkuntzan espezializatutako enpresa bat kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea, 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteei dagokien aldian Urola Kosta eskualdea osatzen duten udalerrietako ikastetxeetan hiri hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko ekintzak sustatzeko eta konposta dinamizatzeko eta ezartzeko, kontuan izanik luza daitekeela 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetara ere.

Kanpainak helburu hauek ditu zehazki:

Hiri hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko ekintzei buruzko helburuak:

- Hondakinen sorrerari buruz sentsibilizatzea.
- Hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta egokiro bereiztea sustatzea, baita hondakinok gaika biltzeko zerbitzuak erabil daitezen bultzatzea ere.
- Azken urteetan Urola Kostan erregistratutako hiri hondakinen ekoizpenaren, gaikako bilketaren, birziklapenaren eta tratamenduaren emaitzak ezagutaraztea.
- Ikasleen artean ingurumen kontzientzia sustatzea —zehazki, ikastetxeetan zakote ontziak eta berriro balia daitezkeen bilgarriak erabiltzeari buruzkoa—, erabilera bakarreko elikagaien bilgarrien hondakinak saihesteko.

Hauek dira konposta ezartzearekin lotutako helburuak:

- Udalerrian konpostajea bultzatzea, materia organikoa kudeatzeko modu alternatibo gisa.
- Ikastetxeko langileei eta ikasleei jakinaraztea garrantzitsua dela sortzen den materia organikoa konpostatze bidez kudeatzea.
- Ikastetxeko langileak eta ikasleak udalerriko hondakinen kudeaketan eta balorizazioan inplikatzea, beren hondakin organikoak tratatzearen bidez.

Beste helburu batzuk:

- Ikastetxean talde lana bultzatzea, eta, bide horretan, ikasleak, irakasleak eta langileak inplikatzea. Taldean lan egiten ikastea, metodologia bati jarraituz eta lan tresnak erabiliz.
- Nekazaritza ekologikoa eta elikadura osasungarria sustatzea.
- Ikastetxean konpostajearen bidez eskuratutako jakintzak aplikatzea.

Atxikita dago 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetako memoria (2. eranskina).

4.2. Hartzaileak

Proiektua ikastetxe hauei zuzenduko zaie (behin-behineko zerrenda):

UDALERRIA	IKASTETXEAK	TALDEAK LH 4. MAILA	TALDEAK DBH 1
AIA	LARDIZABAL	1	0
GETARIA	ITURZAETA	2	0
ORIO	ORIOKO HERRI ESKOLA	2	2
	JUAN ZARAGUETA	1	1
ZARAUTZ	ANTONIANO	2	2
	LA SALLE	2	2
	SALBATORE MITXELENA	3	3
	LIZARDI	0	6
	OROKIETA HERRI ESKOLA	3	0
ZUMAIA	HERRI ESKOLA	4	5
	OIKIA LH4	1	0
	MARIA ETA JOSE (ZUMAIENA)	2	2
GUZTIRA	12	23	23

Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleak izango dira konpostaje proiektu honen hartzaileak (ikastetxeak hala erabakitzen badu, ekintzak beste ikasturte batean egin ditzakete), eta taula honetan agertzen denaren arabera antolatuko dira ekintzak (datuok behin-behinekoak dira):

EKINTZA		LH 4. MAILA		DBH 1	
		BAI/EZ	Kanpoko irakaslea/hezitzailea	BAI/EZ	Kanpoko irakaslea/hezitzailea
Hondakinen kudeaketa	Unitate didaktikoa	BAI	Irakaslea	BAI	Irakaslea
	Garbigunea bisitatzea	BAI	Kanpoko hezitzailea	EZ	
Konpostaje prozesua	Unitate didaktikoa	BAI	Irakaslea	BAI	Irakaslea
	Saio praktikoa	BAI	Kanpoko hezitzailea	EZ	
Laborategiko konposta	Unitate didaktikoa	EZ		BAI	Irakaslea
	Laborategiko 2 saio	EZ		BAI	Kanpoko hezitzailea

Nolanahi ere, ikasle errealen zifrak desberdinak izateak —hemen adierazitakoen aldean— ez du izango eraginik lanen adjudikazioaren zenbatekoan. Era berean, adjudikazioaren zenbatekoa ere ez da aldatuko proiektuan azkenean parte hartzen duten ikastetxeen kopurua aldatzen bada, eta parte hartzen duten ikastetxeen artean banatu beharko da aurreikusitako dedikazio denbora.

4.3. Jardueren deskribapena

Kontratuaren jabeak definitu behar ditu proiektuaren programa eta metodologia.

Hiri hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko gutxieneko ekintzak:

- Ikasleei zuzendutako mezuetan hiri hondakinak minimizatzeko (hau da, ahalik eta gehien murrizteko eta berrerabiltzeko) jarrera bultzatzea eta zabaltzea, bai eta birziklatzearen aldekoa ere.
- Urola Kosta eskualdean hondakinak biltzeko eta kudeatzeko ezarritako zerbitzuak ezagutaraztea, eta Urola Kostan hiri hondakinak sortzeko, gaika biltzeko, birziklatzeko eta tratatzeko jarduerek azken urteotan erakutsi dituzten datuen berri ematea.
- Ikastetxeei eskualdeko hondakinak kudeatzeko instalazio bat bisitatzeko aukera eskaintzea.
- Unitate didaktiko bat sortzea, ikastetxe guztietarako material eta hezkuntza baliabide eskuragarriekin (formatu digitalak lehenetsita); material horren bidez, erabilera bakarreko ontziak murriztea landuko da ikastetxeetan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan).

Konposta ezartzen laguntzeko eskainiko diren gutxieneko ekintzak:

- Kanpaina behar bezala garatzen dela bermatzea, Udal Elkartearen eta ikastetxeen arteko koordinazio sistema ezarriz.
- Ikastetxearen errealitatea aztertzea eta haren beharrak ikustea, eta, eginahal horretan, arduradunekin harreman zuzena izatea.
- Lan faseak garatzeko behar den informazioa lortzea.
- Lan faseak garatzeko proposatutako protokoloak onartzea.
- Egutegia eta lan plana finkatzea, ikastetxeen borondatea eta beharrak kontuan hartuta.
- Dosier pedagogikoa eta konpostaje koadernoaren edukiak egitea (Udal Elkarteak emango ditu dokumentu horien ereduak).
-
- Konpostaje prozesuari lotutako jarraipen bisitak.
- Komunikazio eta hedapen plana definitzea.

II. TITULUA. LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA LANEN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA

5. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko langileak, baliabide materialak eta teknologikoak izango ditu kontratuak irauten duen bitartean, bai eta deskribatutako kanpainako lanen izaera eta beharretara egokitutako antolaketa ere, behar bezala betetzeko baldintza agiri honetako eskakizunak eta bere eginbeharrak.

5.1. Langileak

Adjudikaziodunak berak kontratatuko ditu bere eskaintzan jasotako lanak egiteko behar dituen langile guztiak. Ez da izango inolako lan loturarik kontratua egikaritzeko langileen eta Urola Kostako Udal Elkartearen artean.

Beraz, Udal Elkarteak ez du izango inolako erantzukizunik adjudikaziodunaren eta haren langileen arteko lan harremanen gainean.

Adjudikaziodunak koordinazio eta jarraipen bilerak egingo ditu aldian-aldian Urola Kostako Udal Elkartearen arduradunekin. Adjudikaziodunak lokalizatzeko moduan egon beharko du egunero posta elektronikoz, telefonoz...

5.2. Baliabide materialak

Adjudikaziodunak behar adina baliabide eta azpiegitura izango ditu lanak egiteko (bulegoak, sistema informatiko finkoak eta mugikorrak, eta abar).

Eskaintzan zehazturik agertuko dira kontratu hau gauzatzeko eskura jartzen dituen bitartekoak, baita haien ezaugarri nagusien deskribapena ere (kokapena, azalera, banaketa eta ezaugarri nagusiak).

Era berean, adjudikaziodunak beharrezko garraio elementu guztiak eduki beharko ditu, zerbitzuaren beharren arabera.

Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu beharrezko makineriaren guztizko kostuak (ibilgailuen alokairua, erregaia eta beste ustiapen gastu batzuk).

6. DOKUMENTUAK AURKEZTEA

ESKOLA 2030 AGENDAri dagokionez

Ziklo bakoitzaren lehen eta bigarren urtean, plegu teknikoen “3.3.5” puntuan jasotako edukiarekin, “EBALUAZIO ETA JARRAIPEN TXOSTENAK” idatzi beharko dira.

Ziklo bakoitzean zehar egindako ekintza zehatzak burutu ondoren, ekintza horietako bakoitza amaitu, eta hamar (10) lan eguneko epean, MEMORIA INDIBIDUALIZATU bat aurkeztu edo entregatu beharra dago. Eta beti ere, ziklo bakoitzaren lehen ikasturtearen amaierarako, ekainaren 30erako, beranduenez. Edukiari dagokionez, memoria horren baitan, sartuko da ESKUHARTZE PLANA eta plegu teknikoen “3.3” puntuan adierazitako gainerako dokumentazio osoa

Ziklo bakoitzaren bigarren ikasturtearen amaierarako, ekainaren 30erako, beranduenez, eskuhartze planaren LABURPENA ETA BALORAZIO MEMORIA egin beharra dago, JARRAIPEN-TXOSTENArekin batera, eta plegu teknikoen “3.3” puntuan adierazitako gainerako dokumentazio osoa. Halaber, JARDUEREN PROGRAMA bat ere burutu beharko da, hurrengo ikasturteari begira (bi zikloetako azken ikasturtean izan ezik).

ZISARE PROGRAMAri dagokionez

Ikasturte bakoitzean zehar egindako ekintza zehatzak, alegia, hiri hondakinen murrizketa, berrerabiltzea eta berziklatze ekintzari dagokionez eta konpostaren erabilera areagotzeko ekintzari dagokionez, ekintza horietako bakoitza amaitu eta gero, hamar (10) lan eguneko epean, MEMORIA INDIBIDUALIZATU bat aurkeztu edo entregatu beharra dago, eta plegu teknikoen “4.3” puntuan adierazitako gainerako dokumentazio osoa. Eta beti ere, ikasturte bakoitzaren amaierarako, ekainaren 30erako, beranduenez.

Gainera, bi programei dagokienez, kontratuaren epe osoa amaitu eta hilabeteko epean, LABURPEN EXEKUTIBO bat aurkeztu edo entregatu beharra dago, plegu teknikoen 6.puntuan zehaztutako moduan.

1. ERANSKINA

2022-2023 IKASTURTEA

AZKEN MEMORIA



Energia, bizitzaren motorra

Ondoan close solutions

AURKIBIDEA

1. PROIEKTUA MARTXAN IPINI ETA GARAPEN BILERAK 3
2. IKASLEEKIN GELAN UDAL DIAGNOSTIKOA LANTZEKO IRAKASLEAREN LAGUNTZA MATERIALA 4
3. KOMUNIKAZIOA..... 5
4. ESKOLEN ARTEKO TOPAKETAK..... 5
5. ESKOLEN ARTEKO FOROAK..... 7
6. UDAL FOROAK..... 8

1. PROIEKTUA MARTXAN IPINI ETA GARAPEN BILERAK

Hasera batean, Ondoanek IRAILETIK AURRERA prestatutako ekintzen aurre planifikazioa egiten du eta ondoren Mankomunitatea eta udalekin erabakitzen du behin betiko bertsioa.

Urola Kostako Udal Elkartearekin ikasturte hasieran eginiko lehen bileran ondorengo gaiak jorratzen dira:

- Behin betiko plangintza erabakitzea non ikasturtean zehar egitea aurreikusten diren ekintza eta jardueren informazioa azaltzen den, Ingurugelako kronograma kontutan hartuta.
- Barne eta kanpo mailako komunikaziorako uneak eta erabiliko diren baliabideak zehazten dira (aldizkariak, web orriak, e.a.). Udalarekin ere aztertzen da gai hau.
- Ikasturtean aztertuko den gaiaren inguruko materialen gidoi bat aurkezten da eta materiala prestatzen hasteko informazio eskaria egiten zaio Mankomunitateari: Urola Kostako 2021-2025 energia plana: energia kontsumoa murriztu eta jasangarritasun energetikoari bultzada emateko. Planaren egoeraren eta aurreikuspenen inguruko informazio bilketa egiten da. Atal hau bereziki udalekin ere hitz egiten da.

Ikasturtean zehar jarraipen bilerak egiten dira Mankomunitatearekin. Koordinazio batzarretako egunak aprobetxatzen dira jarraipen bilerak egiteko.

Udalekin: Udaletako teknikariekin koordinazio bilera puntualak egiten dira. 3 unetan elkartzen gara udalekin, presentzialki eta telefonoz egoeraren arabera.

Uneak hauek izan dira: urrian, urtarrilean eta ekainean. Urrian, hasera batetik barne eta kanpo mailako komunikazio bideak ongi zehazteko, aztertuko den gaiaren udal diagnostikoa osatzeko galdetegia, Eskolen arteko I Topaketa eta Foroetako datak ere komentatzen dira.

2. IKASLEEKIN GELAN UDAL DIAGNOSTIKOA LANTZEKO IRAKASLEAREN LAGUNTZA MATERIALA

Irakasleei helarazitako materiala laguntza tresna bat izan da udal diagnostikoa eta ZAZPIGARREN GJH ikasleekin gelan lantzeko.

Laguntza material honen bidez, irakasleei gaia ikasleekin lantzeko laguntza eskaini nahi izan zaie eta oharrak, gelan lantzeko ppointa eta lanerako fitxetara linkak txertatu dira material honetan.

Irakaslearen laguntza materiala



3. KOMUNIKAZIOA

Komunikazio ekintzei dagokionean ikasturtean zehar 6 prentsa ohar prestatu dira. Hona hemen linkak:

- Prentsa oharra 1: MARTXAN DA, 2022-2023 IKASTURTEAN ZARAUZKO, ZESTOAKO ETA ZUMAIAKO IKASTETXEETAN ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMA!
- Prentsa oharra 2: ESKOLEN ARTEKO I TOPAKETA ZARAUTZEN OSPATUKO DA DATORREN OTSAILAREN 15ean
- Prentsa oharra 3: ESKOLEN ARTEKO I TOPAKETA ZARAUTZEN ETA ZESTOAN OSPATU DA OTSAILAREN 15ean, ZARAUTZEN ETA OTSAILAREN 22AN ZESTOAN.
- Prentsa oharra 4: 100 IKASLEK HARTU DUTE PARTE ZARAUTZEN, ZUMAIAN ETA ZESTOAN ANTOLATU DIREN ESKOLEN ARTEKO FOROETAN
- Prentsa oharra 5: MAIATZAREN 17AN ZARAUZKO UDAL FOROA OSPATU DUGU
- Prentsa oharra 6: MAIATZAREN 18AN ZESTOAKO ESKOLEN ARTEKO FOROA ETA UDAL FOROA OSPATU DITUGU

4. ESKOLEN ARTEKO TOPAKETAK

Hiru herrietan Eskolen arteko I Topaketak ospatu dira helburu hauekin:


- ✓ Merkatu elektrikoaren osaera, larrialdi klimatikoa eta energia berriztagarriak hitzaldiaren bidez ikasleak gaian sentsibilizatzea.
- ✓ Iazko ikasturtean ikasleek udal foroan eginiko proposamenen inguruko udal azalpena ematea. Gaia: ZELAIAK, LARREAK ETA LANDARE ITSUTASUNA.
- ✓ Ikasleen eta irakasleen artean elkar ezagutzea eta esperientziak trukatzea.

Zarauzko topaketa





Zumaiako Topaketa



Zestoako Topaketa



5. ESKOLEN ARTEKO FOROAK

Eskolen arteko foroetako helburuak hauek izan dira:

• Eskolan lana eta ibilbideak egin ondoren: Zerbait egin al dezakegu gure herrian energia berriztagarrien erabilera bultzatu eta energia kontsumoa murrizteko? ESKUHARTZE HELBURUEN DISEINUA egin behar dugu!

• Ikastetxea, udala eta herriko eragileekin ekintza bat adosteko pausoak erabakitzea energiaren inguruan hurrengo kurtsoan garatzeko. Adibidez zein? Zein izango zen bakoitzaren ardura? Pentsatu eta adostea. IKASLEAK, IRAKASLEAK,GURASOAK,HERRIKO ERAGILEAK,UDALA.

• Udalari aurkeztea Eskolarteko Foroko emaitzak Udal Foroan.

Zestoa



Zarautz





Zumaia



6. UDAL FOROAK

Udal foroetako helburuak hauek izan dira:

- Ikasleek aurtengo gaia dela eta egindako ekintzen aurkezpena.
- Proposamenak udalari aurkeztea

Zarautz



Zestoa



Zumaia



ESKERRIK ASKO!

UROLA KOSTAKO ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMAKO BUKAERAKO MEMORIA

2.0 Bertsioa

2024/06/24

AURKIBIDEA

1 PROGRAMAREN HELBURUAK 4

2 KRONOGRAMA 4

3 EGINDAKO LANAK 5

3.1 KOORDINAZIOA 5

3.1.1 HASIERAKO BILERA OROKORRA 5

3.1.2 KOORDINAZIO BILERAK 6

3.1.3 IKASTETXEEKIKO ETA UDALEKIKO KOMUNIKAZIOA 7

3.2 ESKU HARTZE PLANAREN FINKAPENA ETA GARAPENA 7

3.2.1 ESKOLA ARTEKO FOROAK 7

3.3 HERRI MAILAKO EKINTZAK 10

3.3.1 ZARAUTZ 10

3.3.2 ZUMAIA 14

3.3.3 ZESTOA 14

3.3.4 GETARIA 15

3.4 BUKAERAKO UDAL FOROAK 16

3.5 PRENTSA OHARRAK 18

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK 18

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA JARRAITUTAKO KRONOGRAMA 4
2. IRUDIA IKASTETXE PARTE HARTZAILEAK 5
3. IRUDIA BILERAREN DATUAK 6
4. IRUDIA IKASTETXEEKIN IZANDAKO HASIERAKO BILERAREN ARGAZKIA 6
5. IRUDIA BILERA OROKORREN DATAK ETA ORDUTEGIAK 6
6. IRUDIA ESKOLA ARTEKO FOROEN DATUAK 7
7. IRUDIA UDALERRI EZBERDINETAKO ESKOLA ARTEKO FOROEN ARGAZKIAK 8
8. IRUDIA VERMICANEK ESKAINITAKO TAILERREN DATAK 10
9. IRUDIA 1. TAILERRETAKO ARGAZKIAK 10
10. IRUDIA 2. TAILERRETAKO ARGAZKIAK 11
11. IRUDIA EGINDAKO BIDEOAREN AZALA 11
12. IRUDIA ESKULAN ERAKUSKETAREN ARGAZKIAK 12
13. IRUDIA BOTOEN ZENBAKETA 13
14. IRUDIA EGINDAKO BIDEOAREN AZALA 14
15. IRUDIA ERAKUSKETAREN ARGAZKIAK BAI ARROABEKO BAI AIZARNAKO INSTALAZIOETAN. 14
16. IRUDIA EGINDAKO BIDEOAREN AZALA 15
17. IRUDIA BUKAERAKO UDAL FOROETAKO DATUAK 16
18. IRUDIA LAU UDALERRIETAKO UDAL FOROETAKO ARGAZKIAK 16

1 PROGRAMAREN HELBURUAK

Dokumentu honen bitartez, Urola Kostako Eskolako Agenda 2030 programak jasotako emaitzak biltzen dira. Programak 2023-2024 ikasturtearen iraupena izan du, izan ere **2023eko irailean hasi eta 2024eko ekainean amaitu da**, Getaria, Zarautz Zestoa eta Zumaiako udalerrietan hainbat ekintza gauzatu direlarik.

Eskolako Agenda 2030aren helburua ikasleen ingurumen hezkuntza eta sentsibilitatea sustatzea izan da, horretarako garapen jasangarriaren aldeko toki prozesuetan parte hartuz. Gauzak horrela, iazko ikasturtean egindako lanei helduz, aurtengo programaren bitartez hurrengo xede espezifikoak lortzea bilatu da:

- **Ikastetxe parte hartzaileen hezkuntza komunitateak garapen jasangarriarekin duen konpromisoa bultzatzea**
- **Iazko urteko gaiak berreskuratzea eta lantzea esku hartze plana garatu eta Garapen Jasangarriko Helburua (GJH) herri mailan zabaltzeko**
- **Ikasleen parte hartzea sustatzea eta protagonistak izatea**
- **Udalerri bakoitzean gutxienez herri mailako ekintza bat gauzatzea bai ikastetxearen bai udalerriaren jasangarritasun kontzientzia sustatzeko**

Jarraian, programaren baitan egindako sentsibilizazio ekintza ezberdinak eta hauen emaitzak eta ondorioak adierazten dira.

2 KRONOGRAMA

Programan antolatuta zeuden jarduera ezberdinak burutzeko, honako egutegia jarraitu da.

1. Irudia ***JARRAITUTAKO KRONOGRAMA***

	Iraila				Urria				Azaroa				Abendua				Urtarrila				Otsaila				Martxoa				Apirila				Maiatza				Ekaina		
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3
Koordinazio bilerak																																							
Datuak bildu eta kudeatu																																							
Esku hatze plana garatu eta finkatzeko asistentzia teknikoa																																							
Ikastetxeentzako materialen garapena																																							
Herri mailako ekintzak prestatu																																							
Herri mailako ekintzak egin																																							
Foroak diseinatu																																							
Eskola arteko foroa																																							
Udal foroa																																							
Hiruhilabeteko buletina																																							
Sare sozialak eta weba																																							
Prentsa oharrak																																							
Bukaerako memoria																																							
Kalitate kontrola																																							

3 EGINDAKO LANAK

2023-2024 ikasturtean zehar lau udalerrietako ikastetxe parte hartzaileei Eskolako Agenda 2030 programa betetzeko laguntza eman zaie. Guztira, 12 ikastetxe parte hartu dute ikasturte honetako EA2030eko programan.

2. Irudia ***IKASTETXE PARTE HARTZAILEAK***

Herria	Ikastetxea
Zarautz	Antoniano Ikastetxea
	Lizardi BHI
	Orokieta HLHI
	La Salle
	Oteitza Lizeo politeknikoa
	Salbatore Mitxelena
	Monte Albertia Lanbide Heziketa
Zestoa	Arroa HLHI
	Aizarna HLHI
Zumaia	Zumaiena
	Zumaia BHI
Getaria	Iturzaeta

Aurten, ekintzara igarotzeko urtea zenez, aurreko ikasturtean (2022-2023) landutako GJHa berreskuratu, Energia irisgarria eta ez kutsagarria, eta herri mailako esku hartze plan bat garatu eta martxan jarri da udalerri bakoitzean.

Jarraian, lan hauek burutu ahal izateko eman diren pausoak garatzen dira.

3.1 KOORDINAZIOA

Programan zehar, ikastetxeekin eta Berritzegune Nagusiarekin koordinatzeko honako komunikazio bideak erabili dira.

3.1.1 HASIERAKO BILERA OROKORRA

Berritzegune Nagusitik Eskolako Agenda 2030 programan aldaketa bat eman da, eta ondorioz, lehen urte bakarrekoa zen programa orain bi urte izatera pasa da. Iazko ikasturtean GJH berri bat hasi ziren lantzen Urola Kostako ikastetxeak, eta beraz, aurten izan da GJH bat bigarren urte batez landu behar izan den lehenengo aldia.

EA2030 programak jasotako aldaketaren ondorioz ikasturte honetan jarraitu den plangintza azaltzeko helburuarekin, Vermicanek bilera bat ospatu zuen urriaren 18an. Bilerara ikastetxe guztietako ordezkari bat etorri zen.

3. Irudia ***BILERAREN DATUAK***

Gaia	Proiektuaren hasierako bilera
Eguna	2023-10-18
Ordua	9:00
Lekua	**Presentziala** Urola kostako Udal Elkartea Urdaneta bidea 6, Zarautz
Vermicanen ordezkaritza	Adur Campo Unai Uberetagoena Nerea Bonachera
Urola Kostako ordezkaritza	Izaskun Agirrezabalaga
Berritzegune Nagusiko ordezkaritza	Olatz Zabaleta
Ikastetxeak	Antoniano Ikastetxea Lizardi BHI Orokieta HLHI La Salle Oteitza Lizeo Politeknikoa Salbatore Mitxelena Ikastola Zumaiena Oikia HLHI Zumaia BHI Iturzaeta Orioko Herri Eskola Juan Zaragueta

4. Irudia ***IKASTETXEEKIN IZANDAKO HASIERAKO BILERAREN ARGAZKIA***



3.1.2 KOORDINAZIO BILERAK

Vermican Berritzegune Nagusitik ikasturtean zehar antolatutako bilera orokor guztietara joan da. Jarraian, bilera bakoitzaren datuak jasotzen dira.

5. Irudia ***BILERA OROKORREN DATAK ETA ORDUTEGIAK***

Data	Ordutegia	Lekua	Bertaratutakoak
2023/11/15	9:00-11:00	UKUE	Berritzegune nagusia Ikastetxeetako ordezkariak (9) UKUE Vermican
2024/01/17	9:00-11:00	UKUE	Berritzegune nagusia Ikastetxeetako ordezkariak (10) Vermican
2024/03/06	9:00-11:00	UKUE	Berritzegune nagusia Ikastetxeetako ordezkariak (10) Vermican
2024/06/05	9:00-11:00	UKUE	Berritzegune nagusia Ikastetxeetako ordezkariak (9) Vermican

Ikastetxeek bai eskola mailan bai herri mailan egin beharreko ekintzen inguruan aritu dira bilera hauek, eta EA2030 programa diruz laguntzeko eskatu beharreko laguntzaren nondik norakoen informazioa eman da baita ere. Halaber, ikastetxeetako koordinatzaileen formakuntza saioen inguruan informazioa eman da.

3.1.3 IKASTETXEEKIKO ETA UDALEKIKO KOMUNIKAZIOA

Udalerri bakoitzeko ekintzak prestatu eta aurrera eramateko Vermicanek ikastetxe parte hartzaile bakoitzaren koordinatzailearekin, baita udal bakoitzaren teknikariarekin ere, etengabeko harremana izan du posta elektronikoaren bidez. Ondorioz, ikastetxeentzat prestatutako edukien bidalketa, eskola arteko eta foroen deialdien zabalpena, etab. bide honen bitartez eman dira.

3.2 ESKU HARTZE PLANAREN FINKAPENA ETA GARAPENA

2023-2024-ko ikasturtean zehar udalerri bakoitzean esku hartze plan bat finkatu behar izan da. Horretarako, 2022-2023-ko ikasturtean harturako konpromezuak eta udalari egindako proposamenak errekuperatu egin dira eta eskola arteko foroen bitartez berriz landu dira, horietatik aurtengo ikasturtean aurrera eramateko ekintzak ateratzeko xedearekin.

Esku hartze planaren garapena 2023ko azaroan hasi eta 2024ko otsaila aldera bukatu zen.

3.2.1 ESKOLA ARTEKO FOROAK

Guztira sei eskola arteko foroak egin dira ikasturtean zehar: 2 Zarautzen eta Zumaian eta bakarra Zestoan eta Getarian. Eskola arteko foroen datu orokorrak honakoak dira:

6. Irudia ***ESKOLA ARTEKO FOROEN DATUAK***

Udalerria	Lekua	Data	Ordutegia	Bertaratutakoak
Zarautz	UKUE	2023/11/29	9:30-10:30	Ikastetxeetako koordinatzaileak Ikasleak (31) UKUE
Zestoa	Udalbatza-aretoa	2024/01/31	10:30-11:30	Ikastetxeetako koordinatzaileak Ikasleak (14)

Udalerria	Lekua	Data	Ordutegia	Bertaratutakoak
Zumaia	Kultur etxea	2023/12/15	10:00-11:00	Ikastetxeetako koordinatzaileak Ikasleak (20)
Getaria	Udaletxea	2024/03/22	9:30-10:30	Ikastetxeetako koordinatzaileak Ikasleak (8)
Zarautz	Musika eskola	2024/02/28	9:30-10:30	Ikastetxeetako koordinatzaileak Ikasleak (45)
Zumaia	Kultur etxea	2024/02/23	10:00-11:00	Ikastetxeetako koordinatzaileak Ikasleak (16)

Batzar hauetan, eskola bakoitzeko ekordezkariak etorri dira eta dinamika parte hartzaileen bidez, aurreko ikasturteko proposamenen eta konpromezuen gainean lanketa bat egin da herri bakoitzeko esku hartze plana finkatzeko helburuarekin.

7. Irudia ***UDALERRI EZBERDINETAKO ESKOLA ARTEKO FOROEN ARGAZKIAK***











Eskola arteko foroetan egindako lanketaren ondorioz, ondorengo herri mailako ekintzak egitea erabaki da:

Zarautz:

- Bizikletak konpontzeko tailer bat antolatzea eta bideo batekin zabaltzea
- Energiarekin lotutako eskulan erakusketa eta lehiaketa bat antolatzea

Zumaia:

- Energia aurrezteko keinuak biltzen dituen bideo bat grabatzea eta herri mailan zabaltzea

Zestoa:

- Energia jasangarriaren aldeko eskulan erakusketa bat antolatzea

Getaria:

- Energiaren erabilera murrizteko egin daitezkeen keinuekin antzerki bat egin eta grabatu herri mailan zabaltzeko.

3.3 HERRI MAILAKO EKINTZAK

Behin herri bakoitzeko ekintza finkatzea lortu denean, ekintza hauek aurrera eramateko prestaketekin hasi dira ikastetxeek. Era berean, Vermicanek ekintza guztiak aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak izan diren baliabideak kudeatu egin ditu udalekin elkarlanean.

Jarraian, udalerri bakoitzean egindako lanak azaltzen dira:

3.3.1 ZARAUTZ

Bizikletak konpontzeko tailer bat antolatzea eta bideo batekin zabaltzea

Ekintza hau aurrera eramateko bi fase jarraitu dira. 1. fasean, Vermicanek ikastetxe parte hartzaileei bizikletak konpontzeko oinarrizko ezagutzak eta jarraitu beharreko pausoak irakasteko tailer bat eskaini die ekordezkariak diren ikasleei. Lau ikastetxeetako ikasleek tailer hau jaso dute, beste ikastetxeetan, aldiz, haien kabuz antolatu dituzte tailerrak. Formakuntza tailer hauek apirilaren bukaeran burutu dira.

8. Irudia ***VERMICANEK ESKAINITAKO TAILERREN DATAK***

Eskola	Data	Ordutegia	Oharrak
Antoniano Ikastetxea	2024/04/29	11:15-12:15	Vermicanek eman du
Lizardi BHI	-	-	Haien kabuz
Orokieta HLHI	2024/04/29	10:00-11:00	Vermicanek eman du
La Salle	2024/04/24	10:30-11:30	Vermicanek eman du
Oteitza Lizeo politeknikoa			Haien kabuz
Salbatore Mitxelena	2024/04/24	09:00-10:00	Vermicanek eman du

9. Irudia ***1. TAILERRETAKO ARGAZKIAK***




2. Fasean, ekordezkariek 1. tailerrean ikasitako ezagutzak beste ikasleei zabaldu diete maiatzaren 13tik 17ra ospatutako beste tailer batekin. 2. tailer horiek grabatu egin dira eta Vermicani bidali zaizkio, honek bideo bakar batean biltzeko.

10. Irudia ***2. TAILERRETAKO ARGAZKIAK***







Bizikletak konpontzeko tailerraren bideoa bukaerako udal foroan proiektatu zen Zarauzko udalari ikasturtean zehar egindakoa erakusteko.

11. Irudia ***EGINDAKO BIDEOAREN AZALA***



Energiarekin lotutako eskulan erakusketa eta lehiaketa bat antolatzea

Apirilaren 8tik maiatzaren 13ra Zarauzko ikastetxeak energiarekin lotutako eskulan ezberdinak prestatzen ibili dira. Guztira, 4 eskola ezberdinek egindako 43 eskulan aurkeztu dira.

Erakusketa, maiatzaren 13tik 17ra irekita egon da Merkatu plazako 1. Solairuan 10:00-13:00 eta 17:00-19:00 ordutegian. Erakusketak iraun duen bitartean bertaraturakoak eskulan originalenen aldeko botoa eman ahal izan dute. Horretarako hiru kategoria bereiztu dira: LHko 3. eta 4. maila, LHko 5. eta 6. maila eta DBHko 1., 2. eta 3. mailak.

Vermicanek botoa emateko boletoak eta erakusketa atean kokaturiko kartelaren diseinua egin du.

12. Irudia ***ESKULAN ERAKUSKETAREN ARGAZKIAK***

















Behin eskulanen erakusketa bukatuta, botoak zenbatu egin dira, hiru kategorien irabazleak zeintzuk diren zehazteko. Guztira, 187 boto erregistratu dira: 22 1. kategoriarako, 110 2. kategoriarako eta 55 3. kategoriarako. Saridunak udal foroan ezagutzera eman dira.

13. Irudia ***BOTOEN ZENBAKETA***



3.3.2 ZUMAIA

Herri mailan energia murrizteko egin daitezkeen keinu txikiak ezagutarazteko helburuarekin, Zumaiako eskolek apirila eta maiatzean zehar bideo ezberdinak grabatu dituzte. Bideo hauek aurretik Vermicanek eta bi ikastetxeek elkarlanean egindako lanean oinarritu dira, gidoi bat jarraituta.

Vermicanek edizio lanak egin ostean, bideoa bukaerako foroan aurkeztu da, ondoren udalak haren sare sozialetan partekatzeko helburuarekin.

14. Irudia ***EGINDAKO BIDEOAREN AZALA***



3.3.3 ZESTOA

Zestoan eskulan erakusketa bat egitea erabaki da, energia iturri jasangarriek duten ahalmena eta garrantzia azpimarratzeko. Gauzak horrela, apirilaren 8tik maiatzaren 20ra bi ikastetxeetako ikasleek eskulanak prestatu dituzte.

Zestoako EA2030eko eskola parte hartzaileak bi auzo ezberdinetakoak direnez, Arroabea eta Aizarna, erakusketa ibiltari izatea erabaki da. Ondorioz, maiatzaren 20tik 24era erakusketa Arroabeko Elkartearen instalazioetan izan zen, Arroabeko auzoan, eta maiatzaren 27tik 31ra, Aizarnara eraman zen, bertako Herri Etxean ikusgai egon zelarik. Bi lekuetan erakusketa arratsaldeko ordutegian irekita egon zen, 17:00etatik 19:00etara.

15. Irudia ***ERAKUSKETAREN ARGAZKIAK BAI ARROABEKO BAI AIZARNAKO INSTALAZIOETAN.***









3.3.4 GETARIA

Eskola arteko foroan egindako lanaren ondorioz, Getarian kontsumo energetikoa murrizteko keinuak zabaltzen dituen antzerki bat prestatzea erabaki dute ikasleek. Antzerkiak eskolan zein etxean egin daitezkeen lau keinu biltzen ditu lan eszena ezberdinen bidez azalduta.

Iturzaetako eskolak apirila eta maiatza bitartean prestatu eta grabatu ditu eszenak, Vermicanekin batera prestatutako gidoi batean oinarrituta. Eszena hauek herri mailan zabaltzeko bideo batean bildu ditu Vermicanek, gero Getariako bukaerako foroan aurkeztu dena. Azkenik, Getariako udalak haren sare sozialetan partekatu du bideoa, udalerriko herritar guztien artean zabaltzeko.

16. Irudia ***EGINDAKO BIDEOAREN AZALA***



3.4 BUKAERAKO UDAL FOROAK

Maiatzaren bukaeran eta ekainaren hasiera bitartean ospatu dira Getaria, Zarautz, Zestoa eta Zumaiako udalerrietako bukaerako udal foro guztiak.

17. Irudia ***BUKAERAKO UDAL FOROETAKO DATUAK***

Udalerria	Lekua	Data	Ordutegia	Bertaratutakoak
Zarautz	Udalbatza-aretoa	2024/05/29	9:30-10:30	Udal ordezkaritza Ikastetxeko koordinatzailea Ikasleak (42)
Zestoa	Udalbatza-aretoa	2024/06/06	10:30-11:30	Udal ordezkaritza Ikastetxeko koordinatzailea Ikasleak (40)
Zumaia	Udalbatza-aretoa	2024/05/31	10:00-11:00	Udal ordezkaritza Ikastetxeko koordinatzailea Ikasleak (23)
Getaria	Udalbatza-aretoa	2024/06/06	9:30-10:00	Udal ordezkaritza Ikastetxeko koordinatzailea Ikasleak (8)

Foro hauetan, alkate eta alderdi politiko ezberdinetako zinegotziei ikasturte honetan landutako lanak eta egindako ekintzak aurkeztu zaizkie. Era berean, udaletik energiaren gaiarekin aurrera eramaten ari diren planen berri eman diete ikasleei, eta 2023-2024 ikasturtean egindako proposamenen jarraipen bat egin da ere bai.

18. Irudia ***LAU UDALERRIETAKO UDAL FOROETAKO ARGAZKIAK***


ESKOLAKO AGENDA


ESKOLAKO AGENDA 2030
ZUMAIAN
EKINTZARA IGAROZ
2023-2024 IKASTURTEA





3.5 PRENTSA OHARRAK

Kanpainaren hasieran eta bukaeran, programaren berri emateko bi prentsa ohar prestatu dira. Hasierako prentsa oharra irailean bidali zitzaion udal elkarteari eta bukaerakoa, aldiz, ekainean.

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK

- Herri mailan egindako ekintzak arrakastatsuak izan direla eta bai ikasleen bai herritarren gustukoak izan direla ondorioztatzen da ikasturte osoan zehar eta bukaerako udal foroetan jasotako emaitza eta iritziengatik.
- Orokorrean, ikastetxe parte hartzaileek inplikazio handia erakutsi dute Eskolako Agenda 2030 programarekiko.
- 7. Garapen Jasangarriko Helburua, Energia irisgarria eta ez kutsagarria, adin batzuetarako, batez ere lehen hezkuntzako lehenengo zikloetarako GJH konplexua izan daitekeela behatu da.
- Esku hartze plana finkatzeko eskola arteko foroan erabilitako dinamika parte hartzailea ikasleek aurreko ikasturtean zehar landutako kontzeptuak eta egindako proposamenak ebaluatzea eta horien artean aukeratzea ahalbidetu du. Honek ikasleak erdian jarri ditu, protagonistak eginez, haiek izan baitira GJH landu ostean gaiarekin lotutako ekintza posibleen azterketa eta aukeraketa egin dutenak.

- Lau udalerrietako esku hartze planak zehazteko denbora asko galdu da. Honek herri mailako ekintzaren prestaketa eta gauzatzea atzeratu du eta bukaerako hilabetetan (apirila-maiatza) ekintzak pilatu dira. Ondorioz, hurrengo urteei begira esku hartze plana lehengo urtean (diagnostikoaren urtean) egitea gomendatzen da.
- Iazko diagnostikoa eta aurtengo esku hartze plana enpresa ezberdinek kudeatzeak ez zaie asko gustatu ikastetxeei, lan egiteko era, baita ikuspegia ere aldatzen baita.
- Lehen aldia izanda ikastetxe guztiek herrian ekintza bateratu bat egin behar izan dutena eta honek ikastetxeen arteko ezberdintasunak agerian jarri ditu, baita udaletxeen inplikazio maila ere.
- Zumaiako kasuan, Eskola Agenda 2030eko teknikari arduradun bat falta izan da eta bigarren foroan ez da udaletik inor agertu. Gainera, ikastetxeek adierazi dutenez ez da lehen aldi horrelakorik gertatzen zaiela. Horretaz gain, azken forora alkatea bakarrik etorri da eta EA2030 programaren inguruan zituen ezagutzak eskasak zirela agerian geratu da. Honek ikasleen artean desadostasun egoera eragin du.
- Bukaerako koordinazio bileran, ikastetxeek adierazi dute udal foroaren formatua, batez ere Zarauzko udalerriaren kasuan, ez zaiela gustatu, formalegia dela iruditzen zaie eta.
- Hurrengo urteei begira, ekintzara igarotzeko garaian udalek inplikazio gehiago erakustea komeni da. Izan ere, udalerri batzuetan begi-bistakoa izan da udalak ez duela ikasleek urtetik urtera egin dutenaren jarraipena egin.

2. ERANSKINA

ESKOLAKO AGENDA 2030

PROGRAMAREN UDAL DIMENTSIOA,

TOKIKO 2030 AGENDAREKIN KOORDINATUTA

GIDA PRAKTIKOA

udal sarea 2030

ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental

Herri-baltzua
Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Gida honen helburua da tresnak ematea Eskolako Agenda 2030 berria udal dimentsiotik garatzen laguntzeko, **bi ikasturteko iraupenarekin** B1. Parte-hartzaile guztiak biltzen dituen eskema bat eskaintzen saiatzen da hizkuntza, helburuak, egutegia, lan-metodologia B eta 26. orrialdean zenba-kitutako gakoak **G** ikus daitezke.

1972an, ingurumena babesteko, defendatzeko eta hobetzeko Ingurumen Hezkuntza ezinbestekoa dela dioen mezua zabaldu zenetik (Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia, Stockholm), gero eta premia larriagoetara egokitzen joan da urteetan zehar. Gaur egungo Eskolako Agenda 2030 programak herritar ahaldunduak eta kontzientzia ekosoziala dutenak sortu nahi ditu, ikasleek modu aktiboan parte har dezaten udalerri gero eta jasangarriagoak lortzeko bidean. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) erreferentziatzat hartuta, **ekintzara igarotzeko garaia** da.

Hona hemen helburu nagusia: **ikasleen partaidetza eta protagonismoa sustatzea** erabakiak hartzean eta udalerrian ekintza eraldatzaileak garatzean. Eskolako Agenda 2030aren nahia da tokiko agenden eta eskolako agenden arteko lankidetza eta sinergiak sortzea.

Hiriak, herriak... gure planetan gehienok okupatzen dugun hiri-espazioak milaka **ikasketa-espazio** B2 eskaintzen ditu, prestakuntza integrala lortzen laguntzeko. Hezkuntzak eskolako hormak gainditzen ditu inguruko hiri-errealitate guztia bustitzeko, eta bi agendek norabide horretan arraun egin behar dute.



01. TESTUINGURUA

Garapen Jasangarriari buruzko 2015eko Munduko Goi-bileran onartu zen 2030 Agenda. Agenda horrek agertoki global bat aurkezten du, maila guztietan (administrazioak, gizarte- eta ekonomia-eragileak) aplika daitekeena. Nazio Batuen Erakundeak ezartzen du lurralde bakoitzak bere inguruabarrak kontuan hartuta egin behar duela bide hori. Horregatik sortu dira zenbait egitura.

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

2030 Agenda (NBE)

Garapen Jasangarrirako Helburuak

2015

17 helburu eta 169 xede, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztien oparotasuna bermatzeko.

2030 Kontratu Soziala 2030 Agenda Euskadi Basque Country

Agenda 2030 Euskadi Basque Country

Eusko Jaurlaritza

2018

Nazioarteko 2030 Agendan laguntzeko hartutako konpromisoa.

udalsarea 2030

Tokiko 2030 Agenda

2018

Udalsarea 2030, udalerri jasangarrien euskal sarea, GJHekin lerrokatzea.

Eskolako Agenda 2030

Eskolako Agenda 2030

2022

Lehen **Eskolako Agenda 21.**

02.

ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMAREN XEDEA

Jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea, bereziki ikasleengan; arazo ekologiko eta sozialen konponbideetan esku-hartzeko beharrezkoak diren konpetentziak eta konpromisoak garatzea, tokian eta maila globalean, eta

ekintza eraldatzaileak egitea, banakakoak zein kolektiboak, ikastetxean eta udalerrian, orain eta etorkizunean.



03. HELBURUAK

1

Jasangarritasunean oinarritutako ekintza eraldatzaileak garatzea.

Ikaskuntza- eta prestakuntza-inguruneak eraldatzea, **jasangarritasunean oinarritutako** jarrera, konpromiso eta **ekintza eraldatzaileak** gara ditzaten, sentsibilizazioaren, krisi ekosozial globalaren eta tokiko krisiaren ezagutzaren eta oinarrizko eta zeharkako konpetentzien lanaren bidez.

2

Ikastetxeko arazo ekosozialen konplexutasuna identifikatzea eta aztertzea.

Ikasleen jasangarritasunerako konpetentzia garatzea, ikastetxeko, udalerriko eta planetako **arazo ekosozialen konplexutasuna** identifikatuz eta aztertuz, arazoaz jabetzeko eta 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen lagunduko duten alternatibak proposatzeko.

3

Kulturaren, politikaren eta ekintzen arteko koherentzia-estrategiak garatzea. Udal-politiketan eragitea.

Ikastetxearen eta udalerriaren jasangarritasunaren kultura garatzea, jasangarritasuna espazio eta baliabideen kudeaketan eta eskola-antolamenduan, **kulturaren, politiken eta ekintzen arteko koherentzia sustatzen duten estrategien** bidez, partaidetzatik sustatutako eta emaitzetan ebaluatutako eraldaketa-ekintzen bidez, ikastetxeko eguneroko bizitza hobetzeko eta **udal-politiketan eragina duten ekimenak proposatzea.**

4

Ikasleak ahalduntzea.

Ikasleak ahalduntzea eta, horretarako, parte hartzen ikasteko espazioak eskaintzea, haien bizimoduei buruzko gogoeta egitea, protagonistak izan daitezen, jasangarritasunaren kulturaren alde mobilizatu daitezen.

5

Eskolen artean sarean lan egitea eta erakundeen eta eskolen artean lankidetzan aritzea. Aldaketa-sinergiak sortzea.

Euskadiko **ikastetxeen arteko sare-lana sustatzea, bai eta erakundeen eta eskolen arteko lankidetza** ere, beharrezkoak diren koordinazio- eta komunikazio-egituren bidez, baliabideak eta ezagutzak partekatzeko eta jasangarritasunaren kulturarantz aldatzeko sinergiak sortzeko.

6

Ikasleen konpetentzien garapena sustatzea.

Jasangarritasunaren kultura ekosoziala izango den curriculumean integratzea, diziplinartekotasuna, arazo-egoerak eta parte-hartzea eta ikerketa-metodologiak bezalako estrategien bitartez, **irakasleek Jasangarritasunerako Hezkuntzarako konpetentzia** garatzeko, **eta ikasleen konpetentzien garapena sustatzeko,** krisi ekosozialaren aurrean.

04.

ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK (G1)

IKASTETXEA

Programan parte hartzea eskatzen duen eta bere faseak garatzeko **konpromisoa** hartzen duen erakundea.

INGURUGELA

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua, 1989an sortua Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Hezkuntza Sailen akordio gisa, Eskolako Agenda 2030 programa zuzendu eta koordinatzen duena.

Bere lana eskola-dimentsioa garatzea da: ikastetxeei **prestakuntza, baliabideak eta aholkularitza** eskaintzea.

2023-2024 ikasturtetik aurrera, **Berritzegune Nagusiak** emango du zerbitzu hori, **jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza**ren esparrutik.

UDALA / ESKUALDEKO ERAKUNDEA


- Udalerriko planen eta proiektuen **berri ematea,** aukeratutako GJHari dagokionez.
- Bileretan eta foroetan **parte hartzea.**
- Eskola Udal Foroan planteatutako proposamenei **erantzutea.**
- Udal Eskola Ekintza gauzatzen **laguntzea eta parte hartzea.**
- Eskolako Agenda 2030 programaren eta Tokiko 2030 Agendaren arteko **sinergiak sortzea**.
- Helburu berberak dituzten tokiko taldeekin **batera lan egitea erraztea,** komunitate hezitzaileak sortzea bultzatuz (GKEak, ludoteka, emakumearen etxea, erretiratuen etxea...).
- Ikastetxeari prozesuan zehar **laguntzea.**

- Ikastetxeen ekintza **koordinatzea** Eskolako Agenda 2030 programaren Agendaren herri-dimentsioan.
- Berritzegune Nagusiarekin koordinatuta, aukeratutako GJHaren edo arazo ekosozialaren udal diagnostikoa egiteko materiala prestatzea.
- Ikastetxeetako ondorioak jasotzea, informazioa ematea eta dinamikak proposatzea, ikasleek udalerrian eskola-ekintzak proposa ditzaten.
- Eskolen arteko Foroa eta Udal Foroak **prestatzea eta dinamizatzea.**
- Fase bakoitzean zehar, informazio nabarmenena duten **txostenak egitea.**
- Udalerrian Esku-hartze plan baten diseinua dinamizatzea (1. ikasturtea) eta Esku-hartze planaren gauzatzea koordinatzea (2. ikasturtea), une oro ikasleen protagonismoa gailenduz. (B1)
- **Komunikabideak** gonbidatzea, eta prozesu osoan zehar **zabalkunde-kana**l aktibo bihurtzea.

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

05.

ERAGILE PARTE-HARTZAILEEN ARTEKO HARREMANAK



06.

ERAGILE PARTE-HARTZAILEEN FUNTZIOAK



IKASTETXEA

- Parte-hartzea
- Konpromisoa



ESKOLAKO AGENDA 2030

EUSKO JAURLARITZA BERRITZEGUNE NAGUSIA

JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ESPARRUA

- Prestakuntza
- Baliabideak eskaintzea
- Aholkuak ematea



UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA

- Berri ematea
- Parte-hartzea
- Erantzunak ematea
- Sinergiak sortzea
- Laguntzea

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

- Koordinatzea
- Prestatzea eta dinamizatzea
- Txostenak egitea
- Jakinaraztea eta zabaltzea

07.
PLANTEAMENDU OROKORRA, BI IKASTURTEKO IKUSPEGIA

1. IKASTURTEA

HASIERA	GARAPENA	AMAIERA
Hasierako Udal Foroa	Udalerriaren eskola diagnostikoa	Eskolen arteko Foroa
	Esku-hartze planaren **diseinua**	Eskola Udal Foroa
		Azken ebaluazioa

2. IKASTURTEA

HASIERA	GARAPENA	AMAIERA
Esku-hartze proposamenari berriro heltzea	Esku-hartze plana **betetzea**	Eskolen arteko Foroa
Hasierako Udal Foroa		Eskola Udal Foroa
		Azken ebaluazioa

08.
IKASTURTE BAKOITZEKO XEDE NAGUSIAK

HASIERAKO FASEA

Hasierako Udal Foroa:

Udalak ikastetxeei ongietorria eta motibazioa emateko ekitaldia.

Elkarrizketa sustatuko da, ikasleak/ikastetxea ere mintzatu ahal izan daitezen.



GARAPENA

Udalerriko Eskola Diagnostikoa:

Udalerriaren abiapuntuko egoeraren argazkia edo irudia lortzea, garatu nahi duen GJHari dagokionez. Hasierako ebaluazioa da.

Udalerrian Esku-hartze plana diseinatzea:

Egindako diagnostikoan oinarrituta, ikasleek udalerrian Esku-hartze plan bat diseinatuko dute, bai udalari zuzendutako proposamenetarako, bai udalerrian berak egin ditzakeen proposamenetarako. Lehenengo ikasturtean diseinua egingo da, eta bigarrenean garatu. B3

AMAIERAKO FASEA

Eskolen arteko Foroa:

Udalerriko edo eskualdeko ikastetxeetako ikasleen ordezkariek osatutako organoa. Bere helburua udalerriko diagnostikoak eta ikastetxe bakoitzaren proposamenak aztertzea eta Eskola Udal Foroa prestatzea da. Teknikariak/enpresak koordinatua.

Eskola Udal Foroa:

Foroa, teknikariaren/enpresaren eta Berritzegune Nagusiaren artean antolatu eta koordinatua. Bertan, ikasleek urtean zehar egindako lanaren emaitzak, hartutako konpromisoak eta proposamenak aurkezten dizkiete tokiko ordezkariei (alkatea, zinegotziak…).

1. IKASTURTEA

HASIERA

HASIERAKO UDAL FOROA (G2)

Ongietorri ekitaldia eta ikastetxeak motibatzea udalaren eskutik.

Eskola Udal Foroa, aurreko ikasturteko proposamenen **jarraipena** egiteko.

Landu beharreko GJH edo egoera ekosozialaren aurkezpena eta udalerriaren egoeraren azalpen laburra, aukeratutako helburuari, planei eta asmoei dagokienez.

Beti eskainiko zaie ikasleei/ikastetxeei aurreko ikasturteko proposamenak azaltzeko aukera.

UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA

Eskolako Agenda 2030 programaren udal dimentsioan ikastetxeak laguntzeko, Ingurumen-hezkuntzan eta garapen jasangarrian ezagutzak dituzten baliabideak bermatuko ditu, bereak edo espezializatutako aholkularitza batenak. Gomendio gisa, kontuan har litezke Eskolako Agenda 2030 programaren bi urteko izaera eta udalaren sailen arteko lankidetza.

Aztertu beharreko egoera ekosozialari lotutako tokiko edo lurraldeko errealitateari buruzko alderdi eta datuei buruz egokitzat jotzen den informazioa ematea.

Mota askotako informazioa izan daiteke: eragina duten datuak, atzeraka doazen adierazleak, tokiko edo probintziako behatokietan lortutako emaitzak... Batez ere, **ikasleen artean** erreakzioak sor ditzakeen informazioa.

Hasierako Udal Foroa prestatzea, laguntza teknikoarekin batera. Ikastetxeei ongietorria egitea eta ikasturteko programari hasiera ematea.

Aurreko ikasturtean aurkeztutako eskaerei erantzutea, baita gauzatu ezin izan direnei ere, horretarako arrazoiak azalduta.

Aukeratutako GJHari erantzuteko udalak/eskualdeko erakundeak zer asmo eta plan dituen azaltzea.

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

Parte-hartzaileekin lehen harremana ezartzea.

Ikasturteko programaren proposamena aurkeztea, betiere Eskolako Agenda 2030 programaren udal-dimentsioa lantzera bideratuta.

Eskolako Agenda 2030 programaren udal-dimentsioari dagozkion eskola-jarduerak hedatzeko kanal bat ezartzea: webgunea, bloga, sare sozialak...

Tokiko eta eskualde mailako informazioa duen materiala biltzea, eta eskola maila bakoitzari egokitzea. Berritzegune Nagusiarekin balioztatu beharko da. Materiala irakasleen eskura jarriko da, aurrez ezarritako **ibilbide-orriaren** arabera.

Hasierako Udal Foroa prestatzea eta garatzea, udalarekin, Berritzegune Nagusiarekin eta ikastetxe bakoitzeko programaz arduratzen diren irakasleekin koordinatuta. Deialdia egitea eta foroan erabili beharreko materiala prestatzea: ikasteko GJHaren aurkezpena, aurreko edizioen errepasoa...

1. IKASTURTEA

GARAPENA

UDALERRIKO ESKOLA DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoa tokiko errealitateari buruzko neurriak eta datuak behatzean eta biltzean datza, gero hartutako gaiari lotuta aztertzeko (GJH, arazoa, egoera ekosoziala...).

ESKOLAN ESKU-HARTZE PLANA DISEINATZEA B3

Egindako diagnostikotik abiatuta, ikasleek udalerrian Esku-hartze plan bat diseinatuko dute. Plan horretan, udalari zuzendutako proposamenak eta udalerrian egin beharreko ekintzen proposamenak jasoko dira.

UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA

G3 Udalean eskuragarri dagoen **informazioa biltzea,** aukeratutako GJHarekin zerikusia duten planei, proiektuei eta beste edozein programa-motari buruz, eta interesgarria dena Tokiko 2030 Agendaren eta Eskolako Agenda 2030 programaren artean sinergiak sortzeko: tokiko ekintza-planak, Jasangarritasun Plana, udal-ordenantzak...

Informazio hori laguntza teknikoaren esku jarriko da, eta ikastetxeek udalerriko diagnostikoa egiteko **materialak** sortzeko erabiliko da.

Udal-guneetarako sarbidea erraztea, beharrezko informazioa eta datuak biltzeko.

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

Udalerriko diagnostikoa egiteko prozesua dinamizatuko du (materialak, irteerak, dinamikak...).

Emaitzen eta ondorioen analisiaren garapena erraztuko du.

Diagnostikoaren ondorioak bilduko dituen txosten bat egingo du, eta ikastetxeei emango die.

Ikasleek egindako diagnostikoaren azterketaren datuak eta emaitza biltzea eta ikastetxeei itzultzea.

G4 Ikasleek egingo dituzte proposamenak. Ekintzak **udalerrian** egin ahal izango dira, udalarekin lankidetzan.

G5 Nolanahi ere, ekintza horiek parte-hartzaileak izango dira, eta eskola-komunitateko talde edo ziklo jakin batzuen laguntzarekin egingo dira:

- Lehendik dauden programa eta/edo jardueren barruan sartzen diren ekintzak, horiei dimentsio berriak emateko.
- Urtean zehar prestatuko diren ekitaldiak, jardunaldiak, kanpainak...
- Udalerriko beste kolektibo batzuk, elkarteak, GKEak, emakumeen kolektiboak eta abar osatzen dituzten proiektuak eta bertatik eratorritako ekintzak.
- ...

1. IKASTURTEA

AMAIERA

ESKOLEN ARTEKO FOROA

Programan parte hartzen duten udalerriko edo eskualdeko ikastetxeetako ikasle ordezkarien arteko bilera, ikastetxe bakoitzeko egindako lana eta diagnostikoa trukatzeko, ikasleek garatu beharreko **Esku-hartze planerako** ekintzak proposatzeko edo agintariei eskatzeko. Ondoren, ikastetxeen eta Berritzegune Nagusiaren artean adostu beharreko txostena prestatzea.

Era berean, ikastetxe bakoitzak hartutako konpromisoak jakinaraziko dira.

UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA

Programaren jarraipenaren arduradunak Eskolen arteko Foroa joateko gonbidapena jasoko du. Horrela, bere prozesua zuzenean jarraitzeko aukera izango du eta bertan lagundu ahal izango du, udal ordezkari gisa, hartzen diren erabakietan bere iritzia emanez.

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

Eskolen arteko Foroa prestatzea eta garatzea: ikastetxeek elkarrekin ekimen komunak egitea sustatuko da (beraien proposamenetatik ateratakoak edo foroan bertan sortutakoak), eta ikasleen protagonismoa uneoro bermatuko da. Udalerrian Esku-hartze planaren diseinua erabakitzeko espazio zehatz bat eskainiko da. Bertan, udalari egindako eskaerak eta udalerrian eskolen artean ekintza bateratu proposamenak jasoko dira (hurrengo ikasturterako).

Eskolen arteko Foroan hartutako erabakiak jasotzea eta informazioarekin txosten bat prestatzea, ikastetxeekin eta Berritzegune Nagusiarekin adosteko.

AMAIERAKO ESKOLA UDAL FOROA

Aurkeztuko den informazioa biltzen duen amaierako txostena bidaltzea.

G6 Eskolako Agenda 2030 programari oihartzun handiagoa emateko, forotik irtetean, ikasle gehiagori zuzendutako bestelako hezkuntza-ekimen mota bat egin liteke, Eskola Udal Foroan ordezkaritza ez baita oso handia izaten.

Adibidez, herriko plazan kanpaina edo erakusketa bat egitea, kartelak jartzea, merkatu solidario bat antolatzea, hartutako konpromisoak, egindako lana edo herritarrei zuzendutako eskaerak aurkezteko.

Eskola Udal Foroa antolatzea. Bertan, Eskolako Agenda 2030 programan parte hartzen duten ikasleak izango dira protagonista. Foro horretako ordezkariei harrera egingo zaie eta ikasturtean zehar egindako lana eta aurkeztutako eskaerak entzungo dira. Informazio hori beren esku egongo da behar besteko aurrerapenaz, erantzunak, galderak edo beste edozein iradokizun prestatzeko.

Udalerrian aurkeztutako Esku-hartze plana proposamena baloratzea, hurrengo ikasturteari begira dagokion Udalaren arloaren lankidetza ahalbidetzeko. N3

G3 Eskolako Agenda 2030 programaren eta Tokiko 2030 Agendaren arteko sinergiak sortzea, egin daitezkeen eskaerak azken horretan integratzen saiatuz.

Foroan aurkeztuko den informazioa bilduko duen azken txostena bidaltzea parte-hartzaile guztiei, udaleko langileei erantzunak, galderak edo beste edozein iradokizun prestatzeko aukera emateko.

Eskola Udal Foroaren diseinuaren aurkezpena: materialak, espazioa, distribuzioa, arauak, zereginen banaketa, etab.

Aurreko foroetan hartutako konpromisoen jarraipen-txostena egitea.

Foroa antolatzea eta dinamizatzea, Berritzegune Nagusiarekin koordinatuta. Komunikabideentzako gonbidapena.

Foroaren emaitza jasotzen duen dokumentua prestatzea, eta ikasleen eskura jartzea, hezkuntza-komunitateari aurkez diezaioten.

Bigarren urtean egin beharreko Esku-hartze planaren diseinua prest uztea gomendatzen da.

AZKEN EBALUAZIOA

Ebaluazioa prozesu osoan zehar kontuan hartu beharreko alderdia izan arren, ikasturte amaieran garrantzi berezia hartzen du, ikasturtean zehar egindako ekintza guztiak ebaluatzen baitira, lortutako emaitzekin batera. **Ondorioak** kontuan hartu beharko dira etorkizunean.

G3 **Azken ebaluazioa,** Berritzegune Nagusiarekin koordinatuta. Bertan, eragile guztien iritziak jasoko dira: irakasleenak, ikasleenak eta prozesuan parte hartu duten gainerako komunitatearenak. Haiekin guztiekin partekatuko dira emaitzak.

2. IKASTURTEA

HASIERA

HASIERAKO UDAL FOROA

Ongietorri ekitaldia eta ikastetxeak motibatzea udalaren eskutik

Aurreko ikasturtean udalari egindako proposamenen jarraipena egiteko udal foroa.

Aurreko ikasturtean diseinatutako udalerriko Eskolako Esku-hartze plana gogoratzea, abian jartzeko. Aurreko urteetan hartutako konpromisoak ere errepasatuko dira.

Ikastetxeek ikasturte honetarako dituzten itxaropenak edo asmoak aurkeztea.

UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA

Hasierako fasean laguntzea, landutako GJHarekin lotutako tokiko eta lurraldeko errealitateari buruzko **datu eta informazio** interesgarriekin. Lehenengo ikasturtean emandako informazioari jarraipena ematea eguneratzeak eginez, halakorik balego.

Hasierako Udal Foroa prestatzea, laguntza teknikoarekin koordinatuta. Ikasturteko programari hasiera ematea ikastetxeei ongietorria eginez.

G2 Aurreko ikasturtean aurkeztutako eskaerei erantzutea eta udalaren planetan duten ezarpenaren jarraipena egitea. Eskaeraren bat bideragarria ez bada, zergatik azaltzea.

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

Hasierako Udal Foroa prestatzea eta garatzea, udalarekin, Berritzegune Nagusiarekin eta ikastetxe bakoitzeko programaz arduratzen diren irakasleekin koordinatuta.

2. IKASTURTEA

GARAPENA

ESKU-HARTZE PLANA GAUZATZEA B3

Lehen ikasturtean egindako plangintza **berreskuratzeko, errepasatzeko eta, agian, egokitzeko unea da (beharrezko doikuntzak egitea).** Udalerrian aurreikusitako ekimenak abian jartzeko **erantzukizunak** esleitu beharko dira.

G5 G7 Tokiko mailan **aurreikusitako ekimen eraldatzaileak** abian jartzea (Esku-hartze plana). Batzuetan, **tokiko erakundeekin lankidetza sustatuko du,** eragina handiagoa izan dadin. Gauzatu beharreko ekintzak **eragin** globala izango du, neurri handiagoan edo txikiagoan. Beste eragile batzuekin lan egitean, ikasleak jabetuko dira **komunitate handiago baten** eta, beraz, **komunitate globalaren parte direla.**

G4 *Esku-hartze plana **malgua** izan daiteke, bai kopuruari dagokionez, bai iraupenari dagokionez. Ikastaroek aurrera egin ahala eta esperientzia handitzearekin batera, hasiera batean sinpleak eta garatzen errazak izango diren ekintzek **ikasleen konplexutasuna, protagonismoa eta ahalduntzea** areagotuko dituzte.

UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA

Esku-hartze planaren garapenaren jarraipena.

Informazioa tokiko hedabideetan eta hedabide propioetan zabaltzen laguntzea.

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

Ikasturtean zehar esku-hartze ekintzak koordinatzea; ikastetxeek antolatutako Eskola Udal Foroetan eta ondorengo Eskolen arteko Foroetan zehaztuko diren alderdiak egongo dira.

Ikastetxeetan eta Ingurugeletan **programa koordinatzen duten irakasleekin** batera, Eskolen arteko Foroak eta horiek garatzeko behar diren bilerak ezartzea.

Gainerako eragileekin koordinatuta, eskolako udal ekintza bakoitza gauzatzeko beharrezkoak diren xehetasunak ezartzea: data, taldeak eta parte-hartzaileen kopurua, beste kolektibo batzuk integratzeko aukera, erabili beharreko **baliabideak,** baloratu beharreko adierazleak...

Ikasturtean zehar komunikaziorako materiala sortzea: bideo tutorialak, sare sozialak... udal-dimentsioko lana garatzen laguntzeko.

Udalarekin koordinatzea, udalaren eskola-ekitaldiak gauzatzeko beharrezkoa dena lortzeko: baimenak, materiala...

Esku-hartze planaren garapenean presentzia izatea eta komunikabideekin zuzeneko harremana izatea, ikastetxeei informazioa emanez komunikazio-plana garatzeko.

2. IKASTURTEA

AMAIERA

ESKOLEN ARTEKO FOROA

Ikastetxeek egokitzat jotzen dituzten Eskola Foroak antolatuko dituzte, esku-hartze bakoitzaren alderdi guztiak zehazteko. Foro horietatik eratorritako proposamenak Eskolen arteko Forora eramango dira, eta han hartuko dira ekintzak gauzatzeari buruzko azken erabakiak.

Gainera, aurreko ikasturtean hartutako konpromisoen jarraipena egingo da.

Udal foroari begira, proposamenak egingo dira, tokiko ekimenak garatzeko orduan erreparatutako hobekuntza aukerei erantzuteko.

Ikastetxeek, Eskolen arteko Foroa bidez, Eskola Udal Foroa prestatuko dute, laguntza teknikoak prestatutako txostena erabiliz.

UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA

Programaren jarraipenaren arduraduna **Eskolen arteko Foro**ra joango da, aldez aurretik gonbidatuta baitago. Horrela, prozesua zuzenean jarraitzeko aukera izango du eta bertan lagundu ahal izango du, udal ordezkari gisa, hartzen diren erabakietan bere iritzia emanez.

G9 Eskolako Agenda 2030 programako eragileen eta interesa duten udalerriko beste kolektibo batzuen arteko bitartekaria ere izan daiteke.

LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)

Behin zentro bakoitzeko Eskola Foroaren emaitzak lortuta, Eskolarteko Foroaren prestaketa eta dinamizazioa.

Eskolarteko Foroan hartutako erabakien bilketa eta informazio guztiarekin txosten bat prestatzea.

AMAIERAKO UDAL ESKOLA FOROA

Bigarren ikasturteko foroa egindako esku-hartzearen ingurukoa izango da (eskolako udal ekintza bat edo batzuk). Era berean, udal-arduradunengana joko dute, udalerriaren garapen jasangarrian hobekuntzak sartzeko egokitzat jo dituzten proposamenak azaltzeko.

Udal agintariek ikastetxeetako ordezkariei erantzuna emateko aukera izango dute.

Aurreko foroetan hartutako konpromisoen jarraipen txostena ere aurkeztu beharko da amaierako foroan.

Eskola Udal Foroa:

Udal Forora deitzea. Foroan, Eskolako Agenda 2030 programan parte hartzen duten ikasleak izango dira protagonista. Ordezkariei harrera egingo zaie, eta ikasturtean zehar egindako jarduerak, ekintzen garapena eta aurkeztutako eskaerak azalduko dira. Informazio hori beren esku behar besteko aurrerapenaz egongo da, erantzunak, galderak edo beste edozein iradokizun prestatzeko.

Gauzatutako Esku-hartze plana baloratzea, eta hartara etorkizunean komunitate globalari zuzendutako ekimenak mantentzea ahalbidetuko da.

G3 Eskolako Agenda 2030 programaren eta Tokiko 2030 Agendaren arteko sinergiak sortzea, eta egin daitezkeen eskaerak azken horretan integratzen saiatzea.

Eskola Udal Foroa prestatzea eta garatzea:

Eskolen arteko Foroan hartutako erabakiak jasotzea eta ikastetxeekin eta Berritzegune Nagusiarekin adostu beharreko txostena prestatzea. Azken txostena, Foroan aurkeztuko den informazioarekin batera, parte-hartzaile guztiei bidaltzea, udaleko eragileei erantzunak, galderak edo beste edozein iradokizun prestatzeko aukera emateko.

Esku-hartze plana gauzatu ondoren lortutako emaitzak aurkeztea.

Aurreko foroetan hartutako konpromisoen jarraipen-txostena egitea.

Komunikabideak gonbidatzea. Eskola Udal Foroa dinamizatzea eta hezkuntza-komunitateari foroaren emaitza aurkeztea.

AZKEN EBALUAZIOA (G10)

Ebaluazioa prozesu osoan zehar kontuan hartu beharreko alderdia izan arren, bigarren ikasturtearen amaieran garrantzi berezia hartzen du, prozesuan zehar egindako ekintzen multzoan ebaluatuko baita, lortutako emaitzekin batera. **Ondorioak kontuan hartu beharko dira hurrengo ikasturteetan.**

Azken ebaluazioa, Berritzegune Nagusiarekin koordinatuta. Bertan, eragile guztien iritziak jasoko dira: irakasleenak, ikasleenak eta prozesuan parte hartu duten gainerako komunitatearenak. Haiekin guztiekin partekatuko dira emaitzak.

IKASTURTEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

	UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA	LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)
KOORDINAZIO BILERAK Ikastetxeetako koordinatzaileen, Berritzegune Nagusiaren, laguntza teknikoaren eta udal-ordezkariaren arteko **bilerak.** Urtero jarraitu beharreko ibilbide-orria ezartzea.	Koordinazio-bileren udal-dimentsioan interesa duen alderdi gisa parte hartzea, hala nahi izanez gero.	Programan parte hartzen duten eragile guztiekin (Berritzegune Nagusia, irakasleak eta udala) **koordinatzea,** bilerak antolatzeko eta garatzeko; udal-dimentsioaren eremuan: egutegia ezartzea, bilera-lekuak erraztea, deialdiak bidaltzea, aktak egitea… Informazioa transmititzeko kanal bat ezartzea, email, drive, elearning… bidez.
HEZIKOMUNIKAZIOA B4 Hezkuntza-komunikazioa **solaskideen elkarrizketarak**o topaketa da. Solaskide horiek, ezagutzak transmititzeko komunikazio hutsaz gain, ikaskuntzak **alternatibak eraikitzeko** baliatu nahi dituzte, esanahiaz jabetuz. Hezkuntza-komunitatea etengabe informatzeko balio izateaz gain, funtsezko elementua izan behar du hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa **ahalbidetzeko** programaren fase guztietan. G4 **Protagonista ikasleak izango dira beti.** HASIERAKO FASEA – **Lehen ikasturtea:** motibazioa, antolaketa, Hasierako Udal Foroa emaitzak, jarduera berezien garapena… – **Bigarren ikasturtea:** 1. ikasturtean diseinatutako esku-hartzea berreskuratzea, Hasierako Udal Foroa emaitzak, jarduera berezien garapena… GARAPEN FASEA – **Lehen ikasturtea:** diagnostikoaren ondorioak eta lehentasunak, eskolako udal esku-hartze diseinua, foroak, ekintza berezien garapena… – **Bigarren ikasturtea:** foroak, aurreikusitako eskola-ekintzak gauzatzea… AMAIERAKO FASEA Amaierako foroaren emaitzak, ebaluazioa, eragina, hartutako konpromisoak…	Sortzen den **informazioaren zabalkundea** erraztea, komunikazio-sailaren edo udaleko komunikazio-arduradunaren, idazkaritzaren eta alkatetzaren bidez (udalerriaren tamainaren arabera). Udalaren sare sozialak eta plataforma digitalak erabiltzea Eskolako Agenda 2030 programari buruzko informazioa zabaltzeko.	Ikastetxeetan hezkuntza-**komunikazioa errazteko baliabideak** sortzea, programaren fase guztietan: familientzako gutunak, posterrak, buletinak, ikus-entzunezko materiala… Eskola-komunitateko eta udal-komunitateko **sare sozialak** aktibatzea eta elikatzea, programan erabilitako baliabideak bideratzeko, eta haien faseen berri ematea. **Komunikabideekiko komunikazioa:** Udalerriko komunikabideei zuzendutako prentsa-oharrak edo bestelako idazkiak idaztea, programaren fase guztietan. Ikastetxeei informazio-baliabideak sortzeko adierazitako materiala ikasleei helarazteko aukera ematea.

IKASTURTEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

	UDALA ESKUALDEKO ERAKUNDEA	LAGUNTZA TEKNIKOA (BARNEKOA EDO KANPOKOA)
EBALUAZIOA **Ebaluazioa** Eskolako Agenda 2030 programaren prozesua berrikusteko, baloratzeko eta hobetzeko **hausnarketa kritikoa** da. Komeni da ikasturtean zehar egitea, baina amaiera une egokia da helburuak zenbatean lortu diren ezagutzeko eta prozesuan zehar egindakoa baloratzeko. Programan parte hartzen duten eragile guztiek hartuko dute parte.	Prozesuaren **balorazioan** laguntzea, egoki iritzitako uneetan.	**Ebaluaziorako baliabideak** sortzea, programan zehar ikastetxeetan egindakoaren balorazioa errazteko. Emaitzak transmititzea.



09.

ESKOLETAKO ESKU-HARTZEEN KASU ZEHATZAK HAINBAT IKASTETXETAKO UDALERRITAN (G8)

1. URNIETA

GAZTEAK ETA BELDURRAREN MAPA

IKASTETXEAK:

Egape ikastola eta Magale ikastetxea. DBH 4 (2015-2016 ikasturtea)

HELBURUA:

Udalerriko puntu beltzak detektatzea eta konponbideak proposatzea

LANKIDETZA:

Bi ikastetxeetako ikasleak, eskola-orduetatik kanpo egindako lana. Azpimarratzekoa da mutilen inplikazioa.

GARAPENA:

Herriko espazioak ikastetxeen artean banatu ziren, eta bakoitzean talde txikiagoak egin ziren. Hasierako ikuspuntua herritarrentzako puntu beltzak detektatzea izan zen, baina parte hartu zuten ikasleen hausnarketen ondoren, azken ikuspuntua emakumeengan zentratu zen. Mapa osatzeko, hautemandako puntu beltz guztiak markatu zituzten: argiztapen eskasa, horma ilunak, zuhaixkak... eta proposamenak aurkeztu zituzten Udal Foroan. Udaleko ordezkarien erantzuna oso azkarra izan zen eta beharrezko jarduerak azkar egin ziren.

Informazio gehiago:

Ingurugelako Topaketak 2022

WWW Egin klik esteka ikusteko



2. AZKOITIA

URMAELA ETA BASO BERRIA MUNOAUNDIN

IKASTETXEAK:

Azkoitia BHI, Bizilore Eskola Aktiboa, Floreaga Salestar ikastetxea, Izarraitz LHII. Hainbat adin eta maila (2021-2022 ikasturtea).

HELBURUA:

Erabilera didaktikoko baso bat eta urmael bat sortzea.

LANKIDETZA:

Udalerriko ikastetxeen, udalaren eta Urola Bizirik Natur taldearen artean.

GARAPENA:

Joan den ikasturtean egindako proposamen bati erantzunez, udalak ikastetxeen esku jarri zuen mendian lursail bat (1 ha) urmael bat sortzeko eta zuhaitz autoktonoekin baso berri bat garatzeko. Eremu horren mantentzea ikasleen esku geratu da: garbiketa, zuhaitz berriak landatzea, urmaelaren jarraipena egitea...



Informazio gehiago:

WWW Egin klik esteka ikusteko

3. TOLOSALDEA

BABARRUN BONBOIAK

IKASTETXEAK:

Tolosaldea LHII, Don Bosco LHII, Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastola, Peñascal Kooperatiba eta Fraisoro Nekazaritza Eskola (2021-2022 ikasturtea).

HELBURUA:

Bonboiak eta horien kutxak sortzea, ekonomia zirkularreko irizpideei jarraituz.

LANKIDETZA:

Eskualdeko lanbide-heziketako ikastetxeen artean.

GARAPENA:

Bonboiak tokiko lehengaiekin egiten dira (babarrunak, erremolatxa eta sagarra) eta kutxak landa-hondakinekin (artoa eta porrua). Peñascaleko sukaldaritzako ikasleek bonboien errezetak garatu zituzten. Don Boscoko Kimika Industrialeko ikasleek papera eta kutxak (enbalajea) egin zituzten. Bestalde, Inmakuladako Farmazia taldeak bonboien nutrizio-azterketa egin zuen. Fraisorok lehengaiak eskaini zituen, eta Tolosaldeko ikasleek papera lehortzeko prozesuan lagundu zuten.

Informazio gehiago:

WWW Egin klik esteka ikusteko



4. SANTURTZI

TOKIKO EKINTZA PLANA BERRIKUSTEA

IKASTETXEAK:

Itxasoko Ama LHI, Maestra Emilia Zuza Brun LHI, Serantes LHI, San Jorge LHII, Kantauri- Axular BHI, Santa Eulalia HLHI, Bihotz Gaztea HLBHIP, San Jose de Calasanz HLBHIP, Sta. María-Hijas de la Cruz HLBHIP, San José HLBHIP (2017-2018 ikasturtea).

HELBURUA:

Tokiko ekintza berrikustea ikasleen ikuspuntutik.

LANKIDETZA:

Udalerriko ikastetxeak eta udala.

GARAPENA:

2018an tokiko ekintza-plana (Agenda 21) berrikusi zenean, Santurtziko Udalak udalerriko ikastetxeekin adostu zuen udalerriko ikastetxeetako ingurumen-hezkuntzako proiektuen tokiko ardatza planaren berrikuspenean eta udalerriko herritar gazteenen ikuspegitik erronka berriak formulatzean zentratzea. Modu antolatuan, tokiko planaren emaitza ikastetxeetako ikasleei helarazi zitzaien, ikasleek benetako gauzatzea ebaluatu zuten eta, emaitza horretatik abiatuta, udal-ekintza plan berrirako eskola-proposamen parte-hartzailea eraiki zen. Ikasleen proposamenak eta konpromisoak Udalbatza Txikian helarazi ziren, eta tokiko hiri-agenda berriaren barruan kokatuko dira. Udalak bere hezkuntza-eskaintzari eta ikasleen parte-hartzeari eusten die, Eskolako Agenda 2030 proiektuekin koordinatuta.

Informazio gehiago:

WWW Egin klik esteka ikusteko



5. BARAKALDO

BARAKALDO EZAGUTU

IKASTETXEAK:

Arteagabeitia LHI, Gurutzeta LHI, Larrea LHI, Mukusuluba LHI, Munoa LHI, El Pilar LHI, Rontegi LHI, Zuazo LHI, Antonio Trueba BHI, Minas BHI, Alazne HLBHIP, La Inmaculada HLBHIP, San Vicente de Paul HLBHIP, San Juan Bosco HLBHIP, Ntra. Sra. del Rosario HLBHIP (LH 1997tik eta DBH 2000tik).

HELBURUA:

Ikastetxeetako ingurumen-hezkuntzako proiektuak garatzea.

LANKIDETZA:

Udalerriko ikastetxeak eta udala.

Informazio gehiago:

Egin klik esteka ikusteko

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

GARAPENA:

Barakaldoko Udalak hezkuntza-eskaintza bat finkatu du udalerriko ikasleentzat, non hiria irakatsi eta ikasteko gune bihurtzen den. Eskaintza hori ikastetxeetako arduradunekin eta hezkuntza-laguntzako zerbitzuekin adostuta eraiki da. Eskaintza etapa guztietako ikasleengana iristeko egituratuta dago, eta curriculumaren arabera erreferentziatuta dago derrigorrezko eta derrigorrezkoen osteko maila guztietan. Udaleko hezkuntza-programan, tokiko garrantziari buruzko ikerketan parte hartzen duten ikasleak bultzatzen dira, ikastetxeen artean partekatutako proiektuaren ardatza osatzen duten egoera sozioekologikoek inguruneetan, tokiko jasangarritasun-programaren eta ikastetxeen arteko komunikazioa mantenduz. Hezkuntza-programaren hasieratik, ikasleek adostasuna lortzen dute, eta beren lanaren ondoriozko konpromisoak eta proposamenak aurkezten dizkiete udaleko Udalbatza Txikiko agintariei.



6. PLENTZIA

ISUSKITZAKO HERRI-BASOA ZAHARBERRITZEA

IKASTETXEAK:

Plentziako Eskola eta Uribe-Kosta BHI. (2019-2020-2021-2022 ikasturteak) DBH 1 – DBH 2 – BATXILERGOA 2.

HELBURUA:

Tranpaerrekako (Isuskitza) haritz-basoa lehengoratzea eta fruta-arbolak dituen gune bat sortzea.

LANKIDETZA:

Plentziako udalerriko ikastetxeen artean, Plentziako Eskola, Uribe-Kosta BHI, udala, Plentziako Herri Lurrak Elkartea, Hazien Sarea eta boluntarioak.

Informazio gehiago:

Isuskitzako basoa (1)

Egin klik esteka ikusteko

Isuskitzako basoa (2)

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA


11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

GARAPENA:

2018. urtearen hasieran, lurzatiaren mugak identifikatu ziren, eta egiaztatu zen ia osorik espezie inbaditzaileek betetzen zutela: eukaliptoek eta akaziek. Hiru mintegi eraiki ziren ikasleek ikasgeletan landatutako haritzak eta arteak lantzeko.

- Espazio honetan bi jarduera bereizi behar dira: lehena, Bihurtuz Elkartearekin hasten da, lursaila garbitu eta mintegiak eraiki zituzten gazteak laneratzen lan egiten duena. Jarraian, Plentziako Eskolako eta Plentziako Uribe-Kosta Institutuko ikasleek hartu dute parte. Beren ikasgeletan haritzezko ezkurrak ereiten dituzte eta ernatzen diren bitartean zaintzen dituzte. Ikasgeletan jaiotako haritzak eta arteak mintegietan birlandatzen dituzte hurrengo urtean.
  Gero lursailean banatzeko eta, horrela, herri-basoa espezie autoktonoekin lehengoratzeko. Ziklo hau urtero errepikatzen da DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin.
- Bigarren jarduerarako, udalerriko boluntarioek, Plentziako Herri Lurrak elkarteak koordinatuta, sastrakak garbitu zituzten, eta, ondoren, Plentziako Institutuko batxilergoko 2. urteko ikasleek lurzatiaren goiko aldean fruta-arbolak (Euskal Autonomia Erkidegoko eta Hazien Bankuko barietate zaharrak) landatu zituzten. Urtero itzultzen gara landatutako zuhaitzak garbitzera eta zaintzera.



7. ARABAKO ERRIOXA

KONPOSTESKOLA SAREA

Arabako Errioxako ikastetxeetako konpostaje-eremuen sarea

IKASTETXEAK:

San Bizente Ikastola, Ramiro de Maeztu HLHI, Lantziego Ikastola, Assa Ikastola, Eltziego Eskola Publikoa HLHI, Bastida Ikastola, Victor Tapia HLHI eta Samaniego BHI (2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteak).

HELBURUA:

Eskolen arteko konektibitatea sustatzea, hondakinak bereiztearekin eta ekonomia zirkularrarekin lotutako jardunbide egokien bidez.

LANKIDETZA:

Ikastetxeak, udalak, Arabako Errioxako Kuadrilla eta herritarrak.

GARAPENA:

Eskolako Agenda 21 programaren Eskualdeko Foroaren zenbait ediziotan, hainbat udalerritako ikasleek materia organikoaren kudeaketa eskatzen zuten. 'KonpostEskola Sarea' deiturikoa garatzeko abiapuntua izan zen: eskola-komunitateei eta, kasu batzuetan, herritarrei zerbitzua ematen zien konpostaje-guneen sarea. Parte hartzen duten ikastetxeek beren jantokiko hondakin organikoak konpostatzeko leku bat zuten. Kuadrilak ezarpena koordinatu zuen, beharrezko materialak eman zituen eta prestakuntza eman zien irakasleei, ikasleei eta udaleko langileei. Udalek kokalekua zuten eta ikastetxeek jarduera garatzen zuten. Zerbitzuak martxan jarraitzen du ikastetxe bakoitzean, eta ikastetxeek konposta dute beren lorategietan edo eskola-baratzeetan erabiltzeko.



8. AMURRIO

IKASLEEK HIRIKO ESPAZIO PUBLIKOAREN DISEINUAN PARTE HARTZEA

IKASTETXEAK:

Aresketa Ikastola (LH 5 eta DBH 4), Amaurre eskola (LH 6 eta DBH 4), Zabaleko HLHI (LH 3), Zaraobe BHI (DBH 4), Mendiko Eskola HLHI (LH 3) (2014-2015 ikasturtea).

HELBURUA:

Ikasleek hiria nola ikusten eta interpretatzen duten, zein neurritan ezagutzen duten, espazio publikoan zer bilatzen duten ezagutzea, eta hiri-plangintzan erabilgarria izan daitekeen proposamen bat egitea.

LANKIDETZA:

Udalerriko ikastetxeetako hainbat maila eta udala.

GARAPENA:

Lurralde Antolamendurako Plan Orokorra zer den erakutsi zaie, eta udalak Nerbioi ibaiaren inguruan egin nahi duen proposamen bat erakutsi zaie. Proposatutako jarduketa trenbidearen azpian pasabide handi bat eraikitzea zen, hirigunea eta Nerbioi ibaia lotuz.

Ikasleek, taldeetan banatutako dinamiken bidez (LH-DBH), proposamenak adostu ahal izan dituzte sortutako espazio horretan nahi eta nahi ez zutenari buruz. Bestalde, bigarren hezkuntzako taldea udalerrian dauden sektoreen azalean jarri da, eta horietako bakoitzak nahi eta nahi ez lituzkeenei buruz hausnartu dute. Azkenik, jasotako erantzunak askotarikoak izan ziren, kasu batzuetan errepikatuak eta beste batzuetan kontrakoak: jolasteko eta aisialdirako guneak adinen arabera banatuta, ur-jolasak, mahaiak joko-taulekin, material birziklatuarekin egindako ekipamendua, nagusientzako ariketa-guneak, iturriak, argiztapen ona, piknik-guneak, estalitako guneren bat, kirolgunea, ibairako sarbideak egokitzea, bidegorriarekin lotzea... Nahi ez zutenaren artean: eraikuntza altuak, aparkalekua, kutsatzen duten jarduerak, komun zikinak, malda handiko guneak, ikuspen txikiko guneak, animaliak aske ibiltzea...



9.

VITORIA-GASTEIZ

'KONPONDER NAIZ'

IKASTETXEAK:

EGIBIDE –Diocesanas Jesús Obrero Fundazioa LHII (2021-2022 ikasturtea).

HELBURUA:

Ordenagailu zaharrak konpontzea haien bizitza luzatzeko edo beste erabilera bat emateko, horrela zabor elektronikoa murrizteko eta gauzak konpontzeko ohitura sustatzeko.

LANKIDETZA:

3erresweb enpresa, Egibide, Lanbide eta Vitoria-Gasteizko udala.

Informazio gehiago:

Egin klik esteka ikusteko

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA


12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

GARAPENA:

3erresweb enpresak eta Egibidek elkarrekin lan egiten dute Lanbideko ikastaro bateko ikasleei praktika esanguratsuak emateko. 2022ko udaberrian beste urrats bat ematea erabaki zuten: Gasteizko Udalaren «Konponder naiz» proiektuan parte hartzea, murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzen dituen ekintza bat abian jarriz.

Gasteizko Udalak ikasgela egokiak eta zabalkundea eman zituen, eta Lanbidek eta Egibidek martxan jarri zituzten praktiketako ikasleak. Eragile horien artean, 4 tailer antolatu ziren, Gasteizko biztanle guztiek ordenagailu zaharrak eraman ahal izateko eta, 3erresweb enpresaren, Lanbideren eta Egibideko ikasleen laguntzarekin, konpondu eta/edo hobetu ahal izateko.

Guztira, 51 ordenagailu eraman zituzten, eta horietatik 48 konpondu eta/edo hobetu zituzten. Ondorioz, 138 kg zabor saihestu ziren.



ZER EGIN…



… UDALERRIREN BATEAN EZ BADAGO ESKOLARIK?

Eskolarik ez duten eta ikasleak eskualdeko beste udalerri batzuetako eskoletara joaten diren udalerriek deialdi espezifiko bat egin ahal izango diote kolektibo horri. Lan-dokumentuaren oinarria ondoko udalerrian edo eskualde-mailan egindako diagnostikoaren antzekoa izan daiteke. Nolanahi ere, erreferentziazko dokumentua (udalerriko diagnostikoa) idazteko laguntza teknikoa beharko dute. Prozesu hori ate irekia izan daiteke neska-mutil horiek tokiko 2030 Agendan parte har dezaten: parte hartzeko foroak, iritzi-saioak eta abar. Are gehiago, haien parte-hartzea ofizialdu daiteke, landutako proposamenak erregistratuz.

… ESKOLA BATZUETAN BESTE UDALERRI BATZUETAKO IKASLEAK BADAUDE?

Eskualdeko erakundea erreferentzia baliagarria izan daiteke ikasle sakabanatuak biltzeko, zenbait udalerritako ikasleekin taldeak osatu ahal izateko. Azken batean, komenigarria litzateke eskualdeko eskola-foro berezi bat antolatzea eta hortik ateratako proposamen posibleak kasuan kasuko udaletan aurkeztea. Udalaz gaindiko dimentsio hori bigarren hezkuntzako ikasleekin egitea komeni da, prozesuak hartzen duen eskalaren arabera. Eskualdeko erakundea (garapen-agentzia, mankomunitatea, kuadrilla) izan daiteke lan egindakoa udaletara bideratzeko zubia, Tokiko 2030 Agendak bere proposamenetan sar dezan.

BI AGENDA 2030EN ARTEKO HARREMANAREN GAKOAK (ESKOLAKOA ETA TOKIKOA)

G1 Eragile parte-hartzaileak ondo identifikatzea.

G2 Parte hartzeak dakartzan konpromisoak hartzea.

G3 Bi agenden artean etengabe berrelikatzen den prozesua da.

G4 Protagonistak ikasleak dira, eta parte hartzeko eragile aktibo bihurtzen dira.

G5 Jasangarritasunean oinarritutako ekintza eraldatzaileak bultzatzen dituen prozesua da.

G6 Ikastetxeen arteko sare-lana sustatzen du.

G7 Erakundeen eta eskolen arteko lankidetza bultzatzen du.

G8 Lanaren oinarrian GJHak daude, eta, beraz, prozesu konplexua da, arreta arazo ekosozialetan jartzen duena.

G9 Ohikoa baino handiagoa den komunitate bateko kide izatea dakar, eta dimentsio orokorragoa hartzen du.

G10 Etengabeko ebaluazio-prozesua da, hausnarketa kritikoa errazten duten adierazleen bidez egina.

BERRIKUNTZAK (B)

B1

Bi ikasturte.

B2

Udalerria, ikasteko gunea.

B3 **Udalerrian Esku-hartze plana.**

- **Lehen ikasturtea:** Esku-hartze plana diseinatzea.
- **Bigarren ikasturtea:** Esku-hartze plana gauzatzea.

B4

Hezikomunikazioa.

BIBLIOGRAFÍA

Benito Iza, J., Gutiérrez Bastida, J. M., Hernández Abaitua, R., eta Marañón Zalduondo, J. (2008). *Eskolako Agenda 21en gida: iraunkortasunerako hezi. Eusko Jaurlaritza*. https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/155843/800007e_agenda_2008_educar_soste_guia_e.pdf?sequence=1&isAllowed=y

Bianchi, G., Pisiotis, U., eta Cabrera Giraldez, M. (2022). *GreenComp The European sustainability competence framework* (Zk. JRC128040). Joint Research Centre (Sevillako egoitza). https://repositorio-aberto.up.pt/bitstream/10216/139375/2/527960.pdf

Europako Kontseilua (2022). *COUNCIL RECOMMENDATION on learning for environmental sustainability.* Brusela, 2022.1.14. COM(2022). 11 final. 2022/0004 (NLE) https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/PDF/?uri=CELEX:52022DC0011

Eusko Jaurlaritza (2018). Agenda Euskadi Basque Country 2030. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua. https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/2030-agenda/

Eusko Jaurlaritza (2018). *2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Publikazio Zerbitzua. https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/2018/2030erako-euskadiko-jasangarritasunerako-hezkuntza-estrategia/web01-a2inghez/eu/

Eusko Jaurlaritza (2019). Euskadiko Hiri Agenda. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Publikazio Zerbitzua. https://www.euskadi.eus/informazioa/bultzatu-2050-basque-urban-agenda/web01-a2lurral/eu/

Fernández Ostolaza, M. A., eta Gutiérrez Bastida, J. M. (2015). *Jasangarritasunerako hezkuntza EAEn: ingurumen-hezkuntzaren ekarpena jasangarritasunaren kultura hedatzeko. Eusko Jaurlaritza.*

Fuhem (2018). *Educar para la transformación ecosocial*. Madril: Fuhem.

Gutiérrez Bastida, J.M. (2018). *Educatio ambientalis. Invitación a la educación ecosocial en el Antropoceno.* Madril: Bubok.

Gutiérrez Bastida, J.M. (2022). *Competencia ecosocial. Crisis ecosocial, alternativas y educación.* Madril: Bubok.

Hart, R. (2001). *La participación de los niños en el desarrollo sostenible.* Barcelona: UNICEF eta PAU Education.

Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura Saila (2015). *HEZIBERRI 2020. Hezkuntza eredu pedagogikoaren esparrua.*

Ihobe (2009). Ingurumen-Hezkuntza iraunkortasunerako: eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 koordinatzea: Hausnarketa estrategikoa eta gako operatiboak Udal garapen iraunkorraren esparruan. Bilbo: Ihobe. https://www.bizkaia21.eus/biblioteca_virtual/detalle_documento.asp?idDoc=152&volver=2&idArea=1&idPagina=124&pag=17&orden=5&tipoOrden=1&idioma=eu

NBE (2015). *Transforming our World: The 2030 Agenda for Sustainable Development.*

UNECE (United Nations Economic Commission for Europe) (2012). *Learning for the future: Competences in Education for Sustainable Development. Geneva: UNECE. Learning for the future: Competences in Education for Sustainable Development*

UNESCO (2014). *Roadmap for Implementing the Global Action Programme on Education for Sustainable Development.*

UNESCO (2017). *Education for sustainable development Goals: Learning Objectives.* Paris: UNESCO. https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000252423

United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization - UNESCO (2014). *Documento de posición sobre la educación después de 2015.* Paris: UNESCO. Hemen berreskuratua: http://unesdoc.unesco.org/images/0022/002273/227336s.pdf

3. ERANSKINA

ZiSare Urola Kosta

Konpostaren aldeko ikastetxeen sarea 2022-2023



ARTELATZ INGURUMEN ZERBITZUAK S.L.

Izaskungo aldapa 3, 1. ezk. 20400 TOLOSA - Gipuzkoa Telf: 943 670 637 www.artelatz.eus IFK:B20959995

AURKIBIDEA

1. IKASTETXEEKIN HARREMANA 3
   1.1. PARTEHARTZEA 3
2. UNITATE DIDAKTIKOEN LANKETA 4
   2.1. HONDAKINEN KUDEAKETA ATALA 4
      2.1.1. Hondakinak herri mailan fitxa didaktikoa 4
      2.1.2. Garbigunera bisita 5
      2.1.3. Birziklapenaren dama jokoa 5
   2.2. KONPOSTAJE PROZESUAREN ATALA 5
      2.2.1. Konpostagailuak montatzea 6
      2.2.2. Formakuntza saioak 6
      2.2.3. Fitxa didaktikoa: Konpostaje prozesua 6
      2.2.4. Laborategi tailer praktikoa: Konpostaje prozesua 6
      2.2.5. Konpostagailu hustuketak 7
      2.2.6. Konpostaren erabilera 7
3. JARRAIPEN BISITAK 8
4. KOMUNIKAZIO PLANA 9
5. EBALUAZIOA 10
   5.1. EBALUAZIO TEKNIKOA 10
   5.2. IRAKASLEEN BALORAZIOA 11
   5.3. PROIEKTUAREN EBALUAZIO OROKORRA 11
6. ERANSKINAK 13

1. IKASTETXEEKIN HARREMANA

2022-2023 ikasturtean normaltasun osoa itzuli da ikastetxeetara, eta horrekin batera baita ZiSare proiektura ere. Aurten hiru helburu nagusi izan ditu: hondakinen sailkapena lantzea biohondakinen tratamenduan zentratuz, hondakinen prebentzioan sentsibilizatzea eta tresna didaktiko ezberdin bat eskuratzea.

KOORDINAZIOA ETA LEHENENGO HARREMANA

Urtero lez ikasturte hasieran, irailaren 27an, proiektuaren aurkezpena egin zen Urola Kostako Mankomunitateko egoitza nagusian. Bertara Urola Kostako Mankomunitatean dauden lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeak gonbidatu ziren.

Bileraren helburua ZiSare proiektua aurkeztu eta bertan parte hartzera animatzea izan zen. Izan ere, aurreko urteetako pandemia garaiak proiektua geldiarazi eta zeinbat ikastetxetan berriro hasteko zalantzak piztu zituen.

Informazio guztia proiektuari lotutako web gunean zintzilikatuta dago eta denon eskura jarri zen. Bertan proiektua aurrera eramateko beharrezkoa den informazio guztia aurkitu daiteke: kronograma, proiektuaren helburuak, koordinazio taldea, eskaintza, materialak, ebaluazioa, jarraipen bisitak eta diagnostikoak etab.

Hurrengo loturan aurkitu daiteke informazio hori:

https://view.genial.ly/6138657947afe70de0c8b105.

1.1. PARTEHARTZEA

2022-2023 ikasturtean zehar Urola Kostako 10 ikastetxek hartu dute ZiSare programan parte. Ikastetxe horiek Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaia udalerrietan kokatzen dira eta maila ezberdinetako ikasleak izan dira lanean ibili direnak, LH zein DBH; guztira 1050.

HERRIA	IKASTETXEA
Orio	Juan Zaragueta Ikastola
Orio	Orioko Herri Eskola
Zarautz	Anoniano Ikastetxea
Zarautz	Lizardi Institutua
Zarautz	Salbatore Mitxelena Ikastola
Zarautz	Orokieta Herri Eskola
Getaria	Iturzaeta Herri Eskola
Zumaia	Zumaiena Ikastetxea
Zumaia	Zumaiako Herri Eskola
Zumaia	Oikiako Herri Eskola

Aipatzekoa da, ikastetxe batzuek zalantzak izan zituzten arren, aurreko urteko ikastetxe guztiek proiektuan jarraitu dutela. Hala ere, nahiz eta parte hartu ikastetxe bakoitzaren

egoera ezberdina izan da ikasturtean zehar eta horregatik tailer edo irteera ezberdinak burutu dituzte.

Hurrengo taulan agertzen da ikastetxe bakoitzak ikasturtean zehar egin dituen ekintzak.

IKASTETXEA	FORMAKUNTZA TAILERRA	LABORATEGI TAILERRA	HUSTUKETA	KONPOST ESPERIMENTUA	GARBIGUNERA BISITA	KONPOSTAGILUA AKTIBO	IKASLE KOPURUA
ORIOKO HERRI ESKOLA	LH 6 (x3) 2022/10/27	LH6 (x4) 2023/03/29-30				BAI	77
ZARAGUETA		LH4 eta DBH1 (x2) 2023/2/2				BAI	72
ANTONIANO		DBH1 (x2) 2023/3/28			LH5 (x2) 2023/5/24	BAI	46
LIZARDI		DBH1 (x6) 2023/4/3-4-5	DBH1 2022/12/5			BAI	150
OROKIETA	LH6 (x3) 2022/10/11	LH6 (x3) 2022/11/02	LH6 2022/10/18			BAI	73
SALBATORE MITXELENA	LH4 (x3) 2023/1/31	LH4 (x3) 2023/4/20				BAI	63
ITURZAETA	LH4 (x2) 2022/10/6	LH4 (x2) 2022/11/3				BAI	27
OIKIA		LH (x1) 2023/6/2				BAI	20
ZUMAIAKO HERRI ESKOLA		LH3 (x4) 2023/5/30-31				BAI	480
ZUMAIENA	DBH1 (x2) 2023/5/11	DBH1 (x2) 2023/5/18		DBH1 (x2) 2023/5/25		EZ	42
Guztira	13	29	2	2	2		1050

2. UNITATE DIDAKTIKOEN LANKETA

ZiSare programaren barnean bi atal bereizten dira: hondakinen kudeaketa atala eta konpostaje prozesuaren atala.

2.1. HONDAKINEN KUDEAKETA ATALA

Atal honen helburua ikasleak hondakinen sorkuntza eta hauen kudeaketaren inguruan sentsibilizatzea da.

2.1.1. Hondakinak herri mailan fitxa didaktikoa

Hondakinen prebentzioaren (murrizketa eta berrerabilera) eta bereizketa egokiaren gaia bermatzeko asmoz, unitate didaktikoak eskaini zaizkie ikastetxe guztiei era autonomoan landu ditzaten. Unitate didaktikoetan, Urola Kostako Mankomunitateak hondakinen bilketan egindako aldaketak barneratu dira. Materiala *www.zisare.org* web gunean eskegita dago, eta fitxa hauek modu betegarrian eskaini dira ikasleek ordenagailuan zuzenean lantzeko.

Bertako jarduerak maila ezberdinei egokitu eta dagokien eduki kurrikularra aberasteko moduan proposatu dira, gai ezberdinak landuz: hiri hondakinen kudeaketari buruzko kontzeptuak; sailkapenaren inguruko bakoitzaren hausnarketa; hondakinen bereizketa jokoak; mankomunitatearen errealitateari buruzko informazioa; hondakinak bildu eta kudeatzeko sistema berria; hondakin organikoen kudeaketari buruzko jakintzak, etab.

2.1.2. Garbigunera bisita

Urola Kostako Garbigune ezberdinetako ateak ireki zaizkie ikastetxeei. Helburua Garbiguneen zergatia ezagutu eta bertan jasotzen diren hondakin motak zein beraien tratamenduak eta helmuga ezagutzea izan da. Era berean, bertan ematen duten zerbitzua, nork erabili dezakeen, arauak, zer eraman eta zer ez...ezagutaraztea da.

Horretarako, hezitzailearen laguntza izan dute ikastaldeek, eta Garbigunera ongi-etorria eta sarrera orokor bat egin ostean, jolas dinamika baten bidez ikasleen partehartzea sustatu da, rol-joko moduko batekin hondakinak non bota behar diren lantzeko. Era honetan, hauen trazabilitatean ere sakondu da.

2.1.3. Birziklapenaren dama jokoa

Jokoa ikastetxeetan era autonomoan jokatu da, ikaskuntza hibridoa sustatuz, (euskarri fisikoa + digitalak uztartuz). Jolas honen helburua, gaikako bilketaren erabilera zuzena errepasatzea izan da, hondakin bakoitza zein edukiontzietan utzi behar den gogoraraziz eta zalantzak argituz.

2.2. KONPOSTAJE PROZESUAREN ATALA

Konpostajeak lotura zuzena du biohondakinekin, zehazki, hondakin organikoen murrizketarekin. Hori horrela, ikastetxe bakoitzari bere biohondakinak murrizteko aukera eskaini zaio.

Atal honetan 9 ikastetxek hartu dute parte. Ikastetxe batek aurten isurketarik ez egitea erabaki du, nahiz eta tailer ezberdinetan parte hartu duen. Bestalde, aipatzekoa da Zaragueta eta Salbatore Mitxelena ikastetxeek isurketak egiten berandu hasi behar izan dutela ikastetxeko obrak zirela eta konpostagailuak desmuntatu behar izan baitziren.

IKASTETXEA	KONPOSTAGAILU KOPURUA
ORIOKO HERRI ESKOLA	Auzokonposta
ZARAGUETA	2
ANTONIANO	3
LIZARDI	2
OROKIETA	2
SALBATORE MITXELENA	1
ITURZAETA	1
OIKIA	3
ZUMAIAKO HERRI ESKOLA	2
ZUMAIENA	2

Lotura honetan konpostagailuen kokapenak ikus daitezke: https://www.google.com/maps/d/edit?mid=19_5w67VcZbdPriJgpvisRy4Fq5wEJyk&usp=sharing

2.2.1. Konpostagailuak montatzea

Ikastetxe guztiek urteak daramatzatenez ZiSare proiektuan denek konpostailuak dituzte. Hala ere, aurretik aipatu den moduan Zaraguetan obrez ondorioz bi konpostagailu berri jarri behar izan dira. Ikastetxe honetan bertan arazoak izan ditugu konpostagailuen tapa hautsita azaldu izan baita, horregatik hurrengo kurtsoari begira konpostagailuak lekuz aldatzea planteatzen da.

Konpostagailuetan aldaketaren bat edo kokapen aldaketa eskatu duten konpostagailuen hustutzeak Mankomunitateak egin ditu baina berriak muntatu edo piezaren bat aldatzeko lana Artelatz S.L.-ek egin du.

2.2.2. Formakuntza saioak

Formakuntza saioak 50-60 minutuko iraupena du. Alde batetik ikasleei konpostajearen inguruko oinarrizko ezagutzak eskaintzen zaizkie; prozesuaren funtzionamendua, isurketak nola egin, hartu beharreko datuak, tresnen erabilera. Eta beste aldetik, zati praktikoa du, ikasleek konpostagailuaren kokapena ikas dezaten bertara gerturatzen gara eta lehen neurketak egiten dira denen artean.

Aproposena saio hauek ikasturte hasieran egitea da, horregatik gehienak urrian egin dira, nahiz eta ikastetxe batean urtarrilean egin eta beste batean ekainean (kasu berezia).

EKINTZA	ZENTRO KOPURUA	SAIOAK	TALDEAK
Formakuntza saioa	5	13	LH4-LH6-DBH1

2.2.3. Fitxa didaktikoa: Konpostaje prozesua

Konpostajearen prozesua lantzeko ikastetxeko arduradunek fitxa didaktikoa programaren web gunean izan dute eskuragarri era autonomoan lantzeko. Unitate didaktiko hau lehen eta bigarren hezkuntzako curriculumen helburuetara moldatu da, zehazki LH4 eta DBH1. mailako edukiei lotzeko asmoz, eta irakasleei tresna osagarrian eskainiz.

Fitxa honetan atal ezberdinak landu dira, besteak beste: konpostajea zer den eta egin daitezkeen mota ezberdinak, materia organikoa naturan gertatzen den zikloarekin alderaketa, konpostagailuko bizidunak, euren antolaketa eta elikadura katea, konpostagailuaren azterketa teknikoa eta laborategi lanean lagungarri diren behaketa fitxak.

2.2.4. Laborategi tailer praktikoa: Konpostaje prozesua

Tailer honen helburua konpostaren prozesuan parte hartzen duten izaki bizidunak ezagutzea da, ornogabeetan zentratuz gehienbat. Horretarako konposta eramaten da ikasgeletara eta talde txikitan bertako xomorroak bilatu behar dituzte. Hasiera batean begi bistaz eta gero laborategiko tresnen laguntzaz hauek aztertu eta ondoren gako dikotomiko bidez sailkatu egiten dira. Era berean kate trofikoa eta elikadura lantzen dira.

Erabat praktikoa den saioa da eta arrakasta handikoa. Saio hauek bigarren eta hirugarren hilekoan egiten dira, behin ikasleak isurketekin martxa hartu dutenean.

EKINTZA	ZENTRO KOPURUA	SAIOAK	TALDEAK
Laborategi tailerra	10	29	LH1-LH2-LH3-LH4-LH6-DBH1





2.2.5. Konpostagailu hustuketak

Hustuketa bi modu ezberdinetan planeatu zaie ikastetxeei, batetik, guk hustuketa materiala utzi eta beraiek egitea hustuketa eta bestetik, hustuketa gidatua izatea, hau da, ikasleek egiten dute hustuketa baino Artelatzeko kideak bertan gaude, materiala eta ikastaldea antolatuz.

Ikasturte honetan bi hustuketa izan dira; Lizardi eta Orokietan, biak kurtso hasiera aldera eta bietan Artelatzek gidatuta.

EKINTZA	ZENTRO KOPURUA	SAIOAK	TALDEAK
Hustuketa	2	2	LH6-DBH1

2.2.6. Konpostaren erabilera

Aurretik aipatu den moduan Zumaiena ikastetxeak aurten isurketarik ez egitea erabaki du. Hala ere, ZiSare programan parte hartu eta konpostajearen inguruko interesa azaldu du. Horregatik formakuntza saio eta laborategi saioak burutu dituzte, baina horretaz gain, konpostaren erabilera nolakoa den ikusteko esperimentu saio bat sortu da.









3. JARRAIPEN BISITAK

Ikasturte osoan zehar konpostagailuak era egokian mantentzen direla eta prozesuak aurrera egiten duela ziurtatzeko jarraipen bat egiten da. Horretarako Artelatz S.L.-ko hezitzaileek kontrol bisitak burutzen dituzte, 4 guztira, neurketa ezberdinak burutuz. Kontrol bakoitzaren ostean ikastetxeei euren konpostagailuaren egoeraren berri eman zaio, hobetzeko aholkuak eskainiz.

- 1. jarraipen bisita: ikasturte hasieran prozesuari hasiera emateko, irailak 21.
- 2. jarraipen bisita: prozesuaren jarraipena egiteko, martxoak 17.
- 3. jarraipen bisita: prozesuaren jarraipena egiteko, maiatzak 18.
- 4. jarraipen bisita: ikasturte amaieran konpostagailuak ixteko, ekainak 28.

Hurrengo urterako pare bat lan geratu dira egiteko, ikasturtea hasi eta berehala:

- Zaraguetako bi konpostagailuak herri langileek hustu eta jarraian ZiSareko arduradunak konpostagailuak lekuz mugitu beharko ditu ikastetxe bazterretik baratza duten eremura. Konpostagailu bateko tapa hautsita dago.
- Oikian eskuin aldeko konpostagailua herri langileek edo ikasleekin (erabakitzeko) hustu ondoren gainontzeko konpostagailuen ezkerretara mugitu beharko da eta tapa berria jarri hautsita duen konpostagailuari.



Zaragueta



Oikia

1. Eranskina: *Ikasturteko kontrol diagnostikoak.*

4. KOMUNIKAZIO PLANA

Hezitzaileak eta ikastetxeetako ZiSare arduradunek ikasturte osoan zehar kontaktu estua izan dute posta elektroniko bidez. Aholkularitza eskaini da momentu oro eta material beharra izan den bakoitzean baliabideak eskaini dira.

Horretaz gain, ZiSarek Urola Kostan blog bat du: *www.zisare.org*. Bertan bi atal bereizten dira: publiko orokorrari zuzendutakoa, non, konpostari buruzko albiste, ohar eta informazioa aurkitu datekeen eta atal pribatua, ikastetxeei zuzendutakoa, gako bidez sartzen dena.

Bertan programa garatzeko oinarrizko informazioa eta unitate didaktikoak eskuratu ditzakete irakasle eta arduradunek, baita bestelako material osagarriak ere: landa koaderno digitala, segurtasun eta osasun neurrien arauak, etab.

Borobiltzeko, ikasturte amaieran prentsa ohar bat idatzi da urtean zehar egin diren ekintzak zabaltzeko eta lortu diren emaitzak plazaratzeko.

2. Eranskina: *Prentsa oharra.*

5. EBALUAZIOA

5.1. EBALUAZIO TEKNIKOA

ZiSare programan metodologia zientifikoa erabiltzea proposatzen da. Biohondakinen kudeaketaz gain, konpostagailu barruan gertatzen den prozesuaz jabearazi nahi dira ikasleak. Hori horrela, astean behin koaderno batean hainbat ezaugarri neurtu eta hauek jasotzea eskatzen zaie ikasteei. Horretarako landa koadernoak sortu dira.





2022-2023 ikasturtean zehar, ikastetxe bakoitzean egoera ezberdinekin topatu gara. Hori dela eta erritmo, dinamika eta antolamendu ezberdinak izan dituzte, horrekin batera emaitza ezberdinak lortuz.

Ikastetxe gehienek datuak bildu eta partekatu dituzten arren, arrazoi ezberdinak direla eta ikastetxe batzuen datuak ez ditugu eskuratu. Kasu horietan, ordea, konpostagailuaren betetze maila kontuan hartuta, ikasturtean zehar nola funtzionatu duten jakinda edo astero zenbat kubo bete dituzten esanda estimazio bat egin da (gorriz agertzen diren datuak estimatutako datuak dira).

Hurrengo taulan ikastetxeka lortu diren datu esanguratsuenak idatzi dira. Bertan, zenbat materia heze eta zenbat materia lehor isuri dituzten agertzen da, kg-tan. Hori kontuan izanda eta ZiSare proiektuan parte hartu duten ikasle kopurua jakinda, zenbat kg ikasleko murriztu diren kalkulatu da.

Ikastetxea	Isuritako mat. hezea (kg)	Isuritako mat lehorra (kg)	GUZTIRA (kg)	Ikasle kopurua	Murrizpena (kg/ikasleko)
Antoniano	100,0	40,0	140,0	46	3,04
Iturzaeta	104,5	36,5	141,0	27	5,22
Orioko herri eskola	22,5	23,1	45,6	77	0,59
Orokieta	210,1	144,3	354,4	73	4,85
Salbatore Mitxelena	61,4	2,6	64,0	63	1,02
Oikia	69,4	55,5	124,9	20	6,24
Lizardi	92,5	55,5	148,0	150	0,99
Zaragueta	21,1	8,4	29,5	72	0,41
Zumaiena	0,0	0,0	0,0	42	0,00
Zumaiako Herri eskola	370,0	111,0	481,0	480	1,00
TOTAL	**1.052**	**477**	**1.528,42**	**1.050**	**1,46**

Taula aztertuz gero, ikasturtean zehar 1528,42 kg biohondakin murriztu direla ikus daiteke. Tona t'erdi pasata. Materia organiko zein egituratzailearen isurketak kontsideratzen dira biohondakinak. 1050 ikaslek parte hartu dutela kontuan izanda, ikasleko 1,46 kg hondakin organiko murriztu direla kalkulatzen da.

Aipatzekoa da Zumaiena ikastetxeak proiektuan parte hartu duen arren eta beraiekin harremanetan jarri garen arren, ikasturte honetan ez duela isurketarik egin. Era berean, Zaragueta eta Salbatore Mitxelena ikastetxeek ikasturtean zeharreko obrak medio konpostagailuak martxan ikasturte erdialdera jartzeko aukera izan dute. Egoera horiek azken emaitzan balore baxuagoak lortzea eragin du.

5.2. IRAKASLEEN BALORAZIOA

ZiSare programan parte hartu duten ikastetxeetako arduradunei ikasturte amaieran balorazioa egitea eskatu zaie.

Konpostaje prozesuan parte hartu duten 10 ikastetxeetatik 8 balorazio jaso dira.

3. Eranskina: *Irakasleen balorazioa.*

Ondoren agertzen dira datuen laburpenak:

- Saio presentzialak (formakuntza eta laborategi saioak) oso modu egokian baloratu dituzte.

- Unitate didaktikoak, garbigunera bisita, birziklapen jolasa eta hustuketa gehiengoak egin ez dituen arren, egin dutenek balorazio oso ona egin dute.

- Bestelako baliabide materialak (motxila, landa koadernoa…) ere modu egokian baloratuak izan dira.

- Baliabide pertsonalak: Artelatz S.L.-ko hezitzailearen aholkularitza eta laguntzaren balorazioa positiboa izan da.

- Proiektua orokorrean ongi eta oso ongi baloratua izan da, eta denek hurrengo urtean ZiSare proiektuan jarraitzeko asmoa dute.

Beraz, orokorrean balorazio guztiak ikusita, arduradunen aldetik ZiSare programa arrakastatsua izan dela ondoriozta dezakegu, erantzunetan jaso ditugun balorazioak baikorrak izan baitira. Iradokizunetan errepikatu den gakoa Artelatz S. L. enpresarekin lana erraz eta gustura egiten dela izan da.

5.3. PROIEKTUAREN EBALUAZIO OROKORRA

Artelatz S.L.-en aldetik, 2022-2023 ikasturtean zeharreko proiektuaren balorazio orokorra positiboa izan da, egoera erabat normaltasunera itzuli dela ikusi baita. Proiektuak urteak daramatza ikastetxeetan eta askok barneratuta dute euren programan. Hala ere, urteetan ikastetxe eta hezitzaileen artean sortutako konfiantza eta harreman estuak lana asko erraztu du, programaren arrakastaren gako izanik.

Azpimarratzeko puntuak:

- Kurtso hasieran ZiSaren parte hartzeko ikastetxe batzuk zalantzak izan zituzten arren, kurtso amaieran ikastetxe guztiek hurrengo urtean jarraitzeko asmoa helarazi digute.

- Programan parte hartu duten hainbat ikastetxek baratza proiektua ere badute eta erlazio zuzena egiten dute ZiSareko konpostajearekin. Mankomunitateak konpost heldua eskuratzeko eskaini dien erraztasuna eskertu dute.

- Programako ikastetxeetako koordinatzaileak eta Artelatz S.L. enpresako programaren arduradunak duen hartu-eman estua ezinbestekoa da programaren garapena ziurtatzeko.

- Programaren arrakasta ziurtatze aldera, konpostaje atalari dagokionez, programaren kronograma betetzen dela ziurtatu behar da, lehen hiruhilekoan formakuntza saioak eta hustuketak eginez, 2. hiruhilekoan, laborategi tailerrak eta 3. hiruhilekoan, hustuketak eginez, beharko balitz.

- Landa koadernoaren erabilera eta metodologia zientifikoa sustatzea garrantzitsua ikusten dugu, aurten ere gutxi izan baitira datuak era egokian bildu dituztenak. Konpostajea datu bilketarik gabe funtsik gabe geratzen dela iruditzen zaigu. Horregatik funtsezkoa da proiektuari behar adina denbora eskaini eta lehentasunak jartzea.

- Zumaienan egin den konpostaren erabilera saioak arrakasta handia izan du eta etorkizunera begira gainontzeko ikastetxeetan planteatu daitekeen tailerra izan daiteke.

Urtero bezala, memoria honetan proiektuaren zenbait alde ahul eta indar puntu azpimarratu dira. Guztiak dira aintzakotzat hartu beharrekoak etorkizun batean, proiektuak aurrera jarraitu dezan.

Artelatz S.L. enpresak ZiSare proiektuan sinesten du eta lan taldearen ilusio eta indar haundiak bertan jartzen ditu proiektuaren arrakasta lortze aldera.

Tolosa, 2023ko ekainean

6. ERANSKINAK

1. Eranskina: *Ikasturteko kontrol diagnostikoak.*

IKASTETXEA: **ZARAGUETA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Eskolaren hesitik kanpo, frontoia eta baratzen artean.									
Bi konpostagailu, bat materia lehorra gordetzeko eta bestea isurketak egiteko.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Obretan daude eta 3 konpostagailuak puskatuta daude.	Konpostagailu zaharrak kendu, toki berri bat definitu eta udalaren erantzunaren zai berriak jartzeko. Agian kandatuak behar.
2	2023/03/17							2 Konpostagailu berri jarri dira. - Ezkerrekoan lehorra. - Eskuinekoan ohea egin da eta Aste Santutik bueltan hasiko dira isurketekin.	
3	2023/05/18	%30	100	7	27	17	Fuertea	Isurketa kopururako estrukturante asko dago botata. Gogoratu zuen isurketen arabera gehitu behar duzuela, proportzioak mantenduz.	Usain nahiko fuertea du, behar adina nahastu ez denaren seinale.
4	2023/06/28	%30	30	7,5	27	22		Konpostagiluak lekuz aldatu behar dira: baratza duten eremura. Tapa hautsita. Oso lehor dago, isurketa kantitate gutxi. Konpostagailuak itxi dira.	

IKASTETXEA: **OROKIETA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Eskolaren kanpoan, ibaia pasata. Baratza duten tokian.									
Ezkerreko konpostagailua.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							%70 beteta baina goiko geruza baratzeko soberakinak dira (udan guraso elkarteak botata) eta adaxka handiegiak.	Hustea komeni da.
2	2023/03/17	%90	60	6	45	15		Oso ondo nahastua. Aste santu bitartean konpostagailu honetan isurketak egiten jarraituko dute. Iraila bitartean konposta heldu eta irailean hustuketa egin formakuntzarekin batera.	
3	2023/05/18	%70	100	7,5	25	17		Hondakin zati handiak. Konpostagailua ixteko asmoa eta eskuinean isurketak egiten hastekoa.	Lehor kantitate handia gainetik botata eta nahastu gabe, gogoratu nahastea. Hondakinen tamaina kontrolatu.
4	2023/06/28							Itxita	
Eskuineko konpostagailua.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Lehorra gordetzeko.	
2	2023/03/17							Lehorra gordetzeko.	
3	2023/05/18							Lehorra gordetzeko.	
4	2023/06/28	%45	%100	7.5	36	20	Ona	Hezetasun handia. Tamaina oso egokia.	

IKASTETXEA: **ANTONIANO**									
Konpostagailuaren kokalekua: Baratzaren ondoan.									
3 konpostagailu.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							3 konpostagailu daude, denek ohea eginda dute.	Zehaztu isurketak egingo dituzten ala ez.
2	2023/03/17	%60	100	7	55	15	Fuertea	- Eskuinekoa itxita. - Erdikoan materia lehorra. - Ezkerrekoan isurketak. Konposta oso ondo dago eginda, baina hezeegi. Ahozapiak eta poltsa konpostagarri bat atera dira.	Hezeegi dagoenez lehor gehiago gehitu. Usainak adierazten duenez gehiago nahastu.
3	2023/05/18	%70	100	7,5	25	11	Fuertea	- Ezkerrekoan isurketak. Konposta hezeegi eta gutxi nahastuta, horren ondorioz usain fuertea. Plastikozko poltsa bat aurkitu da.	
4	2023/06/28	%80	%70	7,5	33	20	Ustel usaina	Usain handia, gehiago nahastu behar. Oso heze konpostagailua.	Lehorra gehitu eta ondo nahastu.

IKASTETXEA: **SALBATORE MITXELENA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Ikastetxeko teilatuan.									
Konpostagailu bakarra.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Obrak direla eta terrazako konpostagailua kenduta. Bankala jarri eta lurrez bete nahi dute konpostagailua jartzeko. Neurriak: - Luzera: 1.6 metro - Zabalera: 0.8 metro - Altuera: 0.5 metro Bankalaren barrukaldea plastikoz estali nahi dute terrazako lurra hainbeste ez zikintzeko.	
2	2023/03/17	%40	100	7	38	15		Ez dira proportzioak mantentzen, lehor gehiegi dago isurketa kopururako. Eltxo kopuru handia (horregatik lehor asko botata seguraski. Normala da hego haize eta tenperatura altuekin).	Heze kopuruaren arabera gehitu lehorra. Orain hasieran isurtzen dena konpostagailuan dagoen lehorrarekin nahastu. Eltxoen presentzia jaisteko isurketak egin ondoren ondo nahastu eta hondakinak ez utzi agerian.
3	2023/05/18	%50	100	8	20	18		Ez dago orekarik materia lehor eta hezearen artean. Nahasterakoan azpitik materia lehorraren geruzak ageri dira. Eltxoen presentzia nabarmena da, hori dela eta posible da horrenbeste lehor bota izana.	Isurketa kantitatearen arabera gehitu lehorra, orekatuta.
4	2023/06/28	%60	%50	7.5	30	20		Tapa irekita aurkitu da. Aurreko isurketekin gehitutako lehorra azpian eta nahasterakoan orekatuta geratu da. Konpostagailua itxi da.	Lorontzietako lurra ez da konpost bihurtuko, espazioa besterik ez du okupatzen.

IKASTETXEA: **LIZARDI**									
Konpostagailuaren kokalekua: Patioko belazean, itzaletan.									
2 konpostagailu; ezkerrekoan materia lehorra gorde, eskuinekoan isurketak.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							Eskuinekoa %50 betea 2020ko konpost zaharrarekin. Ezkerrekoan kandatua hautsia zegoenez hondakinak daude barruan. Kandatuak hautsita daude.	Ezkerrekotik hondakinak atera. Eskuinekoa hustu behar da. Konpostagailuak bereizteko kartelak ipini.
2	2023/03/17	%40	75	7	50	15	Fuertea	Konpostagailua kapetan banatua dago, gaineko geruza material lehorrarena da eta azpian material hezearen geruza dago bloke bat egina. Zati handiak Ez dago nahastua, aireztatzea behar du.	
3	2023/05/18	%60	100	7	32	17	Fuertea	Oso ondo egina, tamaina egokia.	Hezeegi, lehor gehiago gehitu behar.
4	2023/06/28	%80	100	7,5	27	22	Fuertea	Isurketa kantitaterako lehor gehiegi dago botata. Usain fuertea du. Konpostagailuak itxi dira.	

IKASTETXEA: **ITURZAETA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Baratzaren ondoan, aterpe azpian, itzaletan.									
A= Konpostagailu bakarra.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21	%45	10	7,5	21	21		Azkeneko geruza (20cm) baratzeko belar eta landareez osatua, zati handiak. Kendu egin dira.	Isurketak egiten hasi behar.
2	2023/03/17	%60	100	5,5	30	22		Gainean baratzeko sobrak botata, lur eta guzti. Arazoa lurrarekin batera belar txarren haziak ere bertan daudela. Gainean botatako belar horiez gain, konposta ondo egina dago.	
3	2023/05/18	%60	100	7	32	17	Fuertea	Tamaina oso ona. Heze xamar, estrukturante gehiago gehitu.	
4	2023/06/28	%50	100	7,5	28	22	Ona	Tamaina oso ona eta usain ona. Konpostagailua itxi da.	

IKASTETXEA: **OIKIA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Patioko belazean.									
3 konpostagailu dituzte.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21	%50	100	5,5	45	11	Fuertea	-Ezkerrekoa lehorra gordetzeko. -Eskuinekoa ohea eginda, isurketekin hasteko. -Erdikoan egiten dira isurketak. Isurketak egiteaz utziko da.	Ingurua txukundu. Ondo nahastu behar da isurketak egiten diren aldiro eta lehorra gehitu.
2	2023/03/17	%40	100	7	50	22	Fuertea	- Ezkerrekoa lehorra gordetzeko. -Eskuinekoa itxia, ez da isurketarik egiten baina nahasten jarraitzen da oso heze dagoelako. Arazoa izan daiteke lurra aldapa behera egotea eta ondorioz ura bertan pilatzen da, horregatik hustu ondoren konpostagailua mugitzea pentatzen da. -Erdikoan duela hilabete hasi dira isurketak egiten eta ondo.	
3	2023/05/18	%60	80	7	38	16	Fuertea	- Ezkerrekoan materia lehorra. - Eskuinekoa itxita. - Erdikoan isurketak. Euli kopuru oso handia. Azkeneko isurketak nahastu gabe egoterakoan bertan azaltzen dira. Inguruko belardiko velar moztu berria bota da, kontuz tamainarekin, asko zaildu du nahastea!	Orokorrean oso ondo dago, proportzioak mantentzen dira. Esandakoa, azkeneko isurketak agerian baina egun berekoak. Nahastu eta estrukturantea bota dakizuen bezala.
4	2023/06/28	%70	%70	7,5	32	20		Lehorraren tapa puskatuta. Isurketarik ez izaterakoan lehor aurkitzen da konpostagailua. Usain fuertea, gutxi nahastua dagoelako. Kandatuak dituzte hortaz beraiek itxiko dituzte eskola ixterakoan.	Hurrengo kurtsoan eskuineko konpostagailua lekuz aldatu behar da: beste konpostagailuen ezkerretara.

IKASTETXEA: **ZUMAIAKO HERRI ESKOLA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Sarrerako itxitura batean, itzaletan. Pin-poneko mahai ondoan.									
2 konpostagailu dituzte.									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)º	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21							2 konpostagailu eta bietan isurketak - Ezkerrekoa sasiz inguratuta eta ezin izan dira neurketak egin. %20 inguru beteta, adar handiak, iazko isurketak… - Eskuinekoa %10 beteta, ohea eta iazko isurketa gutxi batzuk.	Eremua txukuntzea gomendatu. Ezkerreko konpostagailua hustu behar eta lehorra gordetzeko utzi. Eskuinekoan egin isurketak . Kartelak jarri ez nahasteko
2	2023/03/17	%50	100	8	25	22		Ingurua txukundu da eta konpostagailu bakoitzak kartela du. - Ezkerrekoa lehorra gorddetzeko. - Eskuinekoan nabarmena da isurketak egiten direla baina ez dira orekatuak egiten eta ez da nahasten. Peiorekin hitz egin da eta esan da astero berdea botatzean marroia gehitu eta ondoren nahastea komeni dela. Poltsa organikoak aurkitu dira.	
3	2023/05/18	%45	100	8	25	16		Gaineko geruzak hondakin berdeak soilik ikusten ziren arren, behin nahastuta proportzioak ondo mantentzen direla ikusi da. Tamaina oso handia eta nahastea eragozten du.	Gogoratu isurketak egiten diren bakoitzean jarraian nahastu behar dela. Zati txikiagotan bota.
4	2023/06/28	%60	%10	7,5	27	20		Gaineko 40cm-ak lastoa da, eta horren azpian azkeneko isurketak. Ezinda nahastu lastoa dela eta. Kandatua dutenez itxita mantentzen dira.	

IKASTETXEA: **ZUMAIENA**									
Konpostagailuaren kokalekua: Baso magikora joateko bidean ezkerretara.									
2 konpostagailu									
	Data	Betetze maila	Hezetasuna (%)	pH	Tº (ºC)	Giro Tº (ºC)	Usaina	Egoera	Aholkuak
1	2022/09/21	%40	10	8	20	20	Egur usaina	Ezkerrekoa lehorra gordetzeko zegoen baina isurketak hemen egiten hasi. Azpitik mugitzen da, hortaz, bridekin lotuko da eta ohea egin. Eskuinekoa iaz isurketak egiteko erabiltzen zen, lehorraren azpian 5cm geruza konpost. Aurten materia lehorra gordetzeko erabiliko da.	
2	2023/03/17							Ezkerrekoa hutsa dago. Eskuinekoan ohea eginda. Ez da isurketarik egin.	
3	2023/05/18							Ez dago isurketarik.	
4	2023/06/28							Konpostagailuak itxi dira.	

ORIOKO IKASTOLA	Auzokonpostan parte hartzen dute.	Kudeaketa mankomunitateak darama.

2. Eranskina: *Prentsa oharra.*

ZISARE PROIEKTUA. URTEZ URTE AURRERA PAUSUETAN

2022-2023 ikasturtean zehar ZiSare proiektuan Urola Kostako hainbat ikastetxek hartu dute parte. Ikastetxe hauek Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaia udalerrietan kokatzen dira. Urteak dira dagoeneko proiektua ikastetxe gehienek euren programan barneratuta dutela, eta azkeneko pare bat urteak arraro xamarrak izan diren arren, aurten normaltasun osoz burutzeko aukera izan dugu.

Guztira 10 ikastetxe izan dira konpostaren eta hondakinen murrizketa eta berrerabileraren munduan buru belarri ibili direnak. Bakoitza bere erritmoan noski, baina denak ilusioz. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako 1050 ikasle izan dira ikasturte honetan proiektuan parte hartu dutenak.



Agenda 2030eko helburuekin bat, proiektuaren helburua ikastetxeak sortzen dituen hondakin organikoei irtenbide jasangarri bat eskaintzea izan da, era berean ikasleen kontzientziazioa piztuz. Ikasleak protagonista bihurtuz, beraiek sortzen dituzten hondakin organikoekin zer egin daitekeen ikusteko aukera izan dute. Hamaiketakorako ekarritako platanoaren azala edo bazkarian soberan geratutako dilista platera nola era naturalean eta beraien begi aurrean konpost bihurtzen den ikusi eta aztertzekoa.

Horretarako, ikasturte hasieran konpostari buruzko 13 formakuntza saio burutu ziren 5 ikastetxeetan, naturan berez gertatzen den prozesua konpostagailu barnean nola errepikatzen dugun azaltzeko. Horrekin batera konpostagailuak martxan jarri ziren. Prozesua behin abian, laborategi tailerren ordua iritsi zen. Guztira 29 laborategi tailer egin dira eta ikastetxe guztiek nahi izan dute parte hartu. Bertan, gure konpostagailu barruko protagonistak aztertu genituen eta haien lana mirestu. Saio praktikoen bidez organismo deskonposatzaileak ezagutu eta konpostagailu barnean hauen papera zein den ikertu genuen. Arrakasta handia izan du eta ikasleak bereziki gustura ibili dira lanean.



Behin konposta lortuta horren erabilera ere aztertzen ibili gara. Ikastetxe batzuek baratza dutenez konpostaren erabilera jakina da, baina, ez dutenen artean esperimenturen bat egiteko aukera ere izan dugu.







Saio puntualez gain, ordea, ikasturte osoan zeharreko lana izan dute ikastetxeek. Metodo zientifikoaz baliatuz, ikastetxe gehienek euren ordutegietan astero konpostagailua aztertzeko tartea hartu dute eta bertako hainbat datu biltzekoa; tenperatura, pH, hezetasuna, isuritako material kantitatea…

Datu horiei esker, ikasturte amaieran ikastetxe bakoitzak zenbat kg hondakin organiko murriztu dituen jakiteko aukera izan dugu, eta hain zuzen ere, Urola Kostako Mankomunitatean parte hartu duten ikastetxeek 1528 kg hondakin organiko murriztu dituzte; tona t'erdi pasatxo! Proiektuan lanean ibili diren ikasle kopurua kontuan hartuta, hondakin organikoen kudeaketan murrizketa garrantzitsua eragin dute; 1,46 kg/ikasleko. Kontuan hartuko bagenu 4 herri horietako biztanle kopurua eta datu hauekin estimazio bat egingo bagenu, biztanle guztiek gaikako sailkapena aurrera eramango balute 32000 kg hondakin organiko murriztuko genituzkela aurreikusten da. 32 tona!

Zifrez gain, proiektuaren asebetetze maila kontuan izanda eta ikasle gehiengoaren inplikazioaz jabetuta, hondakinen kudeaketarako irtebideen kontzientzian aurrera pausuak eman direla sinesten dugu.

Orain ikasturtea amaituta, ikastetxeetako konpostagailuak geldirik mantenduko dira, geldi baina aktibo, hurrengo ikasturtean jarraitzeko gosez.




3. Eranskina: *Irakasleen balorazioa.*

IRAKASLEGOAREN BALORAZIOA

Ikastetxea


8 respuestas



BALIABIDE MATERIAL ETA DIDAKTIKOAK

1- KONPOSTAJERAKO FORMAKUNTZA tailer teoriko-praktikoa.

8 respuestas




2- LABORATEGI SAIOA

8 respuestas




3- HUSTUKETA TAILERRA

8 respuestas




4-GARBIGUNERA BISITA

8 respuestas




5-BIRZIKLAPENAREN DAMA JOLASA

8 respuestas




6-HONDAKINEN UNITATE DIDAKTIKOAK (LH-DBH)

8 respuestas



7-KONPOSTAJE PROZESUAREN UNITATE DIDAKTIKOAK (LH-DBH)

8 respuestas



8- ZiSare MOTXILAren edukia (termomentroa, higrometro eta pHmetroa...)?

8 respuestas



9- Isurketetarako banatu den LANDA KOADERNOA?

8 respuestas



13-Baliabideren bat faltan bota al duzue? (kuboak, eskularruak...)

4 respuestas

Ez, behar izan dugun guztia eskura izan dugu.

Zerbait falta izan dugunean erraztasun erabatekoa eskaini diguzue berehala lagunduz. Askotan gure atzetik ere ibili beharra izan duzue, bata edo bestea dela. Lan ona egin duzuela iruditzen zaigu. Erraza izan da zuekin jardutea, eskerrik asko!


Pisu on bat, baina esan zeniguten hori Eskolak erosi behar zuela.

Excela bete behar bada, koadernoa digitala izatea eta hasieratik betetzen hastea.

BALIABIDE PERTSONALAK


1-Orokorrean Urola Kostako Mankomunitateak ZiSare proiektua aurrera eramateko dituen konpostaje TEKNIKARIEN (Aitziber eta Olatz) LAGUNTZA ikasturtean zehar.

8 respuestas



2-Tailerrak, bisitak, bilerak...aurrera eraman dituzten TEKNIKARIEN LANA orokorrean.

8 respuestas




3-Nola baloratzen duzu konpostagailuaren KONTROLA URTEAN LAU ALDIZ egitea? (Bat irailean, beste biak ikasturtean zehar eta azkena ekainean)

8 respuestas




4- EGITURATZAILEA (material lehorra) edo KONPOSTA eskatu duzuenean arrazoizko epe batean eraman zaizue?

8 respuestas



5- KONPOSTAGAILUAK montatu, aldatu...behar izan direnean arrazoizko epe batean egin dira lan hoiek.

8 respuestas



ISURKETAK KONPOSTAGAILURA


1-Zein maiztasunarekin egin dituzue isurketak konpostagailura?

8 respuestas



2- DATU BILKETA: konpostagailura hondakinak isuri dituzuen...

8 respuestas



3-Arazoak aurkitu dituzue isurketak edota datu bilketa egiterako orduan? Zeintzuk?

7 respuestas

Konposta egiten Aste Santua eta gero hasi gara obrak zirela eta; datuak ez ditugu hartu ze uste dugu termometroa eta Phmetroak izorratuta daudela eta

Ez, batzuetan hezeegia aurkitu dugu baina eguraldiaren eraginez izan da.

Gure konposterara kanpoko gauzak botatzen dituzte, adibidez, umeen pardelak.

Eguerdietako tarteak aprobetxatzen ditugu konposta egiteko, ez dugu denbora gehiegi izaten. Zenbaitetan LHko lehen mailetako ikasleak ere arduratzen dira konpostaz (hauek ontzira justu iristen dira altueragatik). Gogoa ere erabatekoa ez diogu jarri datuak biltzeari eta egia esan lan zaila egin zaigu eguneroko martxan txertatzeko.

Pisuarekin arazoak. Baratzeko tailerrekoek landareak botatzea sustrai eta guzti.


Ez dugu egin

Ez.

PROIEKTUA OROKORREAN

1- Baloratu ikasleen asebetetze maila proiektuarekiko

8 respuestas



2- Datorren ikasturtean ZiSaren jarraituko duzue?

8 respuestas



3-Orokorrean proiektuarekin aurkitutako ZAILTASUNAK ezagutzea gustatuko litzaiguke: isurketak egiterako orduan, datuak hartzerako orduan, laguntza falta...

5 respuestas

Usaina, naska....kontuak direla eta batzutan kosta izan da ikasle/irakasleek ondo egitea isurketa....
Datuak oso berandu hasi ginen biltzen, beraz oso gtxitan bildu ditugu. Gainera neurketak ono egitea ikasleei ez zaie gustatzen. Berdina, usaian, naska.... kontuak direla eta....
Baina egin ditugu denak eta positibotzat jotzen dugu.... Hau ere ezagutu behar dutela sinisten dugu.... Baina ez dakit sensibilizatzea lortze ote den....

Guk ez daukagu aipatzeko moduko zailtasunik. Laguntza edo aholkularitza behar izan dugunean. beti jaso dugu eta horrek asko errezten du guztia.

Oso erraza izan da lankidetza, egin diguzuen eskaintza ere kalitatezkoa izan da.

Ondo moldatu gara. LH4ko bi taldeak nahastuta taldeak egin genituen eta txandaka ibili gara. Sukaldeko arduradunak asko laguntzen digu, eta ikasleek berehala hartu zuten martxa.

Ez ditugu zailtasunik izan.

4-Zuen PROPOSAMENAK, EKARPENAK, IRADOKIZUNAK ezagutu nahi ditugu!

3 respuestas

Gu oso gustura gaude Zisare eta Artelatzekin. Eskerrik asko.

Jator izateak bidea beti errazten du eta zuekin lana egiteko modua hori izan da. Gurean egia da ez dela erabateko pisuzko proiektua eskola mailan eta jada barneratua dugula. Ikasturte hasierako eta amaierako bilera presentzialak, proiektua ezagutzen denean, agian ez eginda ere funtziona daiteke.

Balorazio bilera Eskolako ordutegitik kanpo izatea nahiko genuke. Ornogabeen inguruan ikasleekin egindako tailerra oso-oso ona! Eskerrik asko, Artelatz, eskerrik asko, Olatz!

HIRI-HONDAKINEN MURRIZKETA, BERRERABILTZEA ETA BIRZIKLATZEA, ETA KONPOSTAJEA EZARTZEKO KANPAINAKO BUKAERAKO MEMORIA

1.0 Bertsioa

2024/06/12

AURKIBIDEA

1 PROGRAMAREN HELBURUAK 4

2 KRONOGRAMA 4

3 EGINDAKO LANAK 5

3.1 HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU 5

3.1.1 UNITATE DIDAKTIKOA 5

3.1.2 3REN HITZALDI-TAILERRA 6

3.1.3 GARBIGUNERA BISITA 8

3.2 KONPOSTAJEA 11

3.2.1 UNITATE DIDAKTIKOA 11

3.2.2 ESKOLAKO KONPOSTAJEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA BURUTZEKO JARDUERA PROTOKOLOA 12

3.2.3 LEHEN HEZKUNTZAKOEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK 12

3.2.4 LABORATEGIKO ENTSEGUA 12

3.2.5 ESKOLETAKO KONPOSTA GUNEEN JARRAIPENA 12

3.3 PRENTSA OHARRAK 15

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK 15

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA JARRAITUTAKO KRONOGRAMA 4
2. IRUDIA UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA 5
3. IRUDIA HITZALDIETAKO DATU OROKORRAK 6
4. IRUDIA 3R HITZALDI-TAILERRAREN ARGAZKIAK 7
5. IRUDIA GARBIGUNEKO BISITEN DATU OROKORRAK 8
6. IRUDIA ORIOKO ETA ZARAUZKO GARBIGUNEEN BISITEN ARGAZKIAK 8
7. IRUDIA UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA 11
8. IRUDIA LABORATEGIKO ENTSEGUEN DATUAK 12
9. IRUDIA IKASTURTEAN ZEHAR EGINDAKO BISITEN DATUAK 12
10. IRUDIA ESKOLA EZBERDINEN KONPOSTA GUNEAK 13
11. IRUDIA BEHATUTAKO GORABEHEREN ARGAZKI BATZUK 14

1 PROGRAMAREN HELBURUAK

Dokumentu honen bitartez, hiri hondakinen murrizketa, berrerabiltzea eta birziklatzea, baita konpostajea ezartzeko kanpainak jasotako emaitzak biltzen dira. Programak 2023-2024 ikasturtearen iraupena izan du, izan ere **2023eko irailean hasi eta 2024eko ekainean amaitu da**, Urola Kostako udalerrietan hainbat ekintza gauzatu direlarik.

Programa honen helburua eskualdeko ikasleei hondakinak sorkuntza prebenitzeko eta behar bezala kudeatzeko tresnak ematea izan da. Izan ere, programak hondakinen ondorengoko esparruetan lantzea bilatu du: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea alde batetik, eta konpostajea, beste aldetik. Jarraian esparru bakoitzeko xede espezifikoak azaltzen dira:

Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzearekin lotutako helburuak:

- **Sortzen ditugun hondakinen inguruan sentsibilizatzea.**
- **Hondakinak murriztu, berrerabili eta ondo bereizi daitezen eta hondakinen gaikako bilketa-zerbitzuak erabil daitezen bultzatzea.**
- **Ikasleen artean ingurumen-kontzientzia bultzatzea.**

Konpostajea ezartzeari dagokionez, hauek dira helburuak:

- **Udalean konpostajea bultzatzea, materia organikoa kudeatzeko alternatiba gisa.**
- **Ikastetxeetako langileei eta ikasleei konpostaren bidez ikastetxean sortutako materia organikoa kudeatzearen garrantzia azaltzea.**
- **Ikastetxeko langileak eta ikasleak udaleko hondakinak kudeatu eta balorizatzeko lanean inplikatzea, sortzen dituzten hondakin organikoak tratatuz.**

Jarraian, programaren baitan egindako sentsibilizazio ekintza ezberdinak eta hauen emaitzak eta ondorioak adierazten dira.

2 KRONOGRAMA

Programan antolatuta zeuden jarduera ezberdinak burutzeko, hurrengo kronograma jarraitu da.

1. Irudia ***JARRAITUTAKO KRONOGRAMA***

	Iraila				Urria				Azaroa				Abendua				Urtarrila				Otsaila				Martxoa				Apirila				Maiatza				Ekaina	
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2
Koordinazio orokorra																																						
3R jarduerak																																						
Hitzaldi informatiboaak																																						
Garbiguneko bisitak																																						
Garbiguneko bisitetarako protokoloa																																						
Unitate didaktikoa																																						
Konpostaje jarduerak																																						
Konposta guneko jarduera protokoloa																																						
Unitate didaktikoa																																						
Jarraipen teknikorako bisitak																																						
Konpostajeko tailerrak (prestaketa)																																						
Laborategiko entseguak																																						
Bukaerako txostena																																						
Kalitate kontrola																																						

3 EGINDAKO LANAK

Kanpainan bi esparruetako ekintzak burutu dira: alde betetik, hiri hondakinak murriztu, berrerabiltzeko eta birziklapena sustatzeko helburuarekin eta bestetik, konpostajearen ezarpena bultzatzeko helburuarekin. Jarraian, lan hauek burutu ahal izateko egin diren ekintzak azaltzen dira.

3.1 HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU

Jarraian, hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birziklapena sustatzeko asmoarekin burututako jarduerak azaltzen dira.

3.1.1 UNITATE DIDAKTIKOA

Erabilera bakarreko ontziek sor ditzaketen inpaktuak eta hauen alternatibak zabaltzeko helburuarekin, Vermicanek unitate didaktiko bat sortu du. Unitate didaktiko honek, eskualdeko ikastetxe guztientzako material eta hezkuntza baliabideak eskuragarri jartzen ditu, ikasgeletan zein egunerokotasunaren beste esparrutan erabilera bakarreko ontziak murriztea sustatzeko tresna erabilgarria izateko asmoz.

Unitate didaktiko honen helburu nagusia ikasleak erabilera bakarreko ontziak murrizteko sentsibilizatzea da.

2. Irudia ***UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA***



Proposatutako jarduerak hainbat kapitulutan banatzen dira, jorratutako gaiaren arabera:

1. Sarrera
2. Plastikoen arazoa
3. Zer egin dezakegu guk?

Unitate didaktikoa Urola Kostako ikastetxe guztiei bidali zaie haien programazioaren baitan erabili ahal izateko.

3.1.2 3REN HITZALDI-TAILERRA

Ikasleen artean hondakinen kudeaketa jasangarria bultzatzeko nahian, 3R-en (murriztu, berrerabili eta birziklatu) inguruko hitzaldiak antolatu dira ikasturteko abendu eta otsaila bitartean. Hitzaldiak 50 minutuko iraupena izan dute eta DBH1eko mailetara zuzenduak egon dira.

3. Irudia ***HITZALDIETAKO DATU OROKORRAK***

	Ikastetxea	Udalerria	Data	Ordutegia	Ikasle kopurua
1	Salbatore Mitxelena	Zarautz	15/12/2023	8:30-9:25	19
2	Salbatore Mitxelena	Zarautz	15/12/2023	9:25-10:20	17
3	Salbatore Mitxelena	Zarautz	15/12/2023	10:50-11:45	17
4	La Salle	Zarautz	18/12/2023	14:30-15:25	24
5	La Salle	Zarautz	18/12/2023	15:25-16:20	24
6	Jun Zaragueta	Orio	18/1/2024	14:30-15:25	17
7	Zumaiena	Zumaia	28/1/2024	8:05-9:00	17
8	Zumaiena	Zumaia	28/1/2024	9:00-10:05	20
9	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	9:25-10:20	20
10	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	10:35-11:25	19
11	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	11:25-12:15	21

	Ikastetxea	Udalerria	Data	Ordutegia	Ikasle kopurua
12	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	12:40-13:35	16
13	Lizardi	Zarautz	29/1/2024	13:35-14:30	23
14	Orioko Herri Ikastola	Orio	2/2/2024	9:30-10:20	26
15	Orioko Herri Ikastola	Orio	2/2/2024	10:40-11:30	24
16	Orioko Herri Ikastola	Orio	2/2/2024	11:30-12:20	26
17	Antoniano Ikastetxea	Zarautz	29/02/2024	14:40-15:35	21
18	Antoniano Ikastetxea	Zarautz	29/02/24	15:35-16:30	19
					370

Guztira, 18 hitzaldi eman dira 7 ikastetxe ezberdinetan eta **370 ikasleek jaso dituzte**.

4. Irudia ***3R HITZALDI-TAILERRAREN ARGAZKIAK***









Hitzaldietan era dinamiko batean hondakinekin loturiko problematika landu da, kudeaketa jasangarriarekin zerikusitako kontzeptuak (murriztu, berrerabili eta birziklatu, aztarna ekologikoa, ekonomia zirkularra, etab.) eta hondakinak gutxitzeko aukera ezberdinak aurkeztuz.

3.1.3 GARBIGUNERA BISITA

Vermicanek eskualdeko garbiguneetara bisitak antolatu ditu apirilean zehar.

Bisita prestatzeko, Urola Kostako Udal Elkarteko prebentzio teknikariarekin bisitatu dira eskualdeko garbigune guztiak eta bisita protokolo bat prestatu da non bisitaren nondik norakoak zehaztu diren.

Bisitak Zarautz, Zumaia eta Orioko garbigunetan egiteko planteatu dira eta udalerri guztientzako ikastetxeei eskaini zaizkie, baina Zumaiako udalerriko ikastetxeek ez dute parte hartu nahi izan, beraz Zarautz eta Oroko garbiguneak baino ez dira bisitatu.

5. Irudia ***GARBIGUNEKO BISITEN DATU OROKORRAK***

Udalerria	Ikastetxea	Data	Ordutegia	Ikasle kopurua
Zarautz	Antoniano Ikastetxea	2024-04-17	10:30-11:15	16
	Antoniano Ikastetxea	2024-04-29	10:30-11:15	16
	Orokieta	2024-04-22	10:30-11:15	18
	Orokieta	2024-04-23	10:30-11:15	19
	Orokieta	2024-04-25	10:30-11:15	16
	Orokieta	2024-04-26	10:30-11:15	19
	La Salle	2024-04-15	10:30-11:15	26
	La Salle	2024-04-18	10:30-11:15	26
	Salbatore Mitxelena	2024-04-16	10:30-11:15	24
	Salbatore Mitxelena	2024-04-19	10:30-11:15	25
	Salbatore Mitxelena	2024-04-24	10:30-11:15	23
Orio	Orioko Herri Eskola	2024-04-08	10:00-10:45	19
	Orioko Herri Eskola	2024-04-11	10:00-10:45	19
	Orioko Herri Eskola	2024-04-11	11:00-11:45	19
				285

Bisitak LH4 eta LH5-eko ikasleei zuzenduta egon dira eta 45 minutuko iraupena izan dute. Guztira, 5 ikastetxeek bisitatu dituzte Zarauzko eta Orioko garbiguneak, hau da, **285 ikasle**.

6. Irudia ***ORIOKO ETA ZARAUZKO GARBIGUNEEN BISITEN ARGAZKIAK***








EGURRA
MADERA



3.2 KONPOSTAJEA

Konpostajearen ezarpenaren inguruko lanei dagokionez, jarraian azaltzen dira eginiko lanak.

3.2.1 UNITATE DIDAKTIKOA

Konpostajea ezartzeko eta horren jarraipena egiteko helburuarekin, Vermicanek unitate didaktiko bat sortu du. Unitate didaktiko honek, eskualdeko ikastetxe guztientzako material eta hezkuntza baliabideak eskuragarri jartzen ditu, ikasgeletan konpostajea ezagutu eta hau ezartzeko baliabideak eskaintzeko helburuarekin.

Konkretuki, unitate didaktiko honen bitartez ikasgelan garatu beharreko kontzientziazio jarduera batzuk aurkezten dira. Jarduerak hezkuntza maila desberdinetara egokitzeko diseinatuta daude, bai helburuetan, bai erabili beharreko dinamiketan.

7. Irudia ***UNITATE DIDAKTIKOAREN AZALA***



Unitate didaktikoa Urola Kostako ikastetxe guztiei bidali zaie haien programazioaren baitan erabili ahal izateko.

3.2.2 ESKOLAKO KONPOSTAJEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA BURUTZEKO JARDUERA PROTOKOLOA

Vermicanek Eskolako konpostajearen jarraipena eta kontrola burutzeko jarduera protokolo bat prestatu eta eskola parte hartzailei helarazi die, konpostajearekin lotutako zereginen oinarri moduan erabil dezaten.

3.2.3 LEHEN HEZKUNTZAKOEI ZUZENDUTAKO TAILERRAK

Vermicanek lehen hezkuntzarako 6 tailer diseinatu ditu konpostajeari buruz. Baliabide horiek behar duten ikastetxeei emateko, udal elkartearen hedatze-bideak (web orria) erabili dira.

Tailer bakoitzean beharrezkoak diren baliabideen zerrenda, lortu nahi diren helburuak, onurak, eskatutako adin-maila, jardueraren deskribapena, baliabide materialak, etab. barneratzen ditu.

3.2.4 LABORATEGIKO ENTSEGUA

Vermicanek konpostaren ahalmena eta onurak ezagutarazteko laborategiko entsegu bat diseinatu eta DBH1eko klaseetan egin du.

8. Irudia ***LABORATEGIKO ENTSEGUEN DATUAK***

Ikastetxea	Udalerria	Data	Ordutegia	Saioaren iraupena	Ikasle kopurua
La Salle	Zarautz	11/4/2024	14:30-15:25	55 min	23
La Salle	Zarautz	11/4/2024	15:25-16:20	55 min	22
Zumaiena	Zumaia	17/4/2024	12:20-13:15	55 min	19
Zumaiena	Zumaia	17/4/2024	13:15-14:10	55 min	20
Antoniano Ikastetxea	Zarautz	18/04/2024	14:30-15:25	55min	21
Antoniano Ikastetxea	Zarautz	18/04/24	15:25-16:20	55min	20
					125

Tailerrak apirilan zehar egin dira eskualdeko 3 ikastetxe ezberdinetan. Guztira, **125 ikasle izan dira tailerra jaso dutenak**.

3.2.5 ESKOLETAKO KONPOSTA GUNEEN JARRAIPENA

Konpostajea egiten duten eskolei euren konposta guneei ikasturtean zehar lau jarraipen bisita egitea eskaini zaie. Bisiten helburua, ikastetxeei konpostaje prozesuan laguntza eta aholkularitza eskaintzea da, izan ditzaketen zalantza posibleak argituz, baita gorabeherak izatekotan hauek konponduz ere.

9. Irudia ***IKASTURTEAN ZEHAR EGINDAKO BISITEN DATUAK***

Ikastetxea	1. Bisita	Ordua	2. Bisita	Ordua	3. Bisita	Ordua	4. Bisita	Ordua
Antoniano Ikastetxea	19/10/2023	12:30	11/12/2023	12:30	21/03/2024	10:00	05/06/2024	11:45
Lizardi BHI	16/10/2023	9:30	12/12/2023	15:00	21/03/2024	9:30		

Ikastetxea	1. Bisita	Ordua	2. Bisita	Ordua	3. Bisita	Ordua	4. Bisita	Ordua
Orokieta HLHI	16/10/2023	11:00	11/12/2023	13:00	21/03/2024	10:30	05/06/2024	11:15
La Salle	18/10/2023	12:00	14/02/2024	14:00	21/03/2024	9:00	05/06/2024	11:15
Salbatore Mitxelena	16/10/2023	12:30	01/12/2023	13:30	21/03/2024	11:00	05/06/2024	12:45
Zumaiena	09/10/2023	9:30						
Oikia HLHI	09/10/2023	11:30	29/11/2023	15:00	21/03/2024	13:00	06/06/2024	12:00
Zumaia BHI	20/10/2023	10:30	28/11/2023	14:00	22/03/2024	11:30	06/06/2024	11:30
Iturzaeta	11/10/2023	9:45			22/03/2024	11:00	06/06/2024	11:00
Orioko Herri Eskola	19/10/2023	11:00	11/12/2023	13:30	21/03/2024	11:45	05/06/2024	13:45
Juan Zaragueta	10/10/2023	9:00	11/12/2023	14:00	21/03/2024	12:15	05/06/2024	13:45

Ikasturte honetan La Salleko ikastetxea programara atxikitu da, beraz guztira 11 ikastetxe parte hartzaile izan dira. Hala ere, momentu honetan Zumaienako ikastetxea eta Lizardiko institutua ez dira konpostajea egiten ari, eta ondorioz, bi eskola hauei ez zaizkie bisita guztiak egin: Zumaienakoei lehengo bisita soilik egin zaio eta Lizardiko institutuari lehenengo hirurak.

Bestalde, Iturzaetako eskola berandu hasi da konpostajea egiten, horregatik ez zaio bigarren bisitarik egin.

10. Irudia ***ESKOLA EZBERDINEN KONPOSTA GUNEAK***








Orokorrean, gorabehera gutxi ikusi dira eskoletako konposta guneetan eta hauek identifikatu direnean berehala konpondu dira. Gehien detektatutako intzidentziak hondar organiko freskoak gainazalean tapatu gabe uztea (euliak eta eltxoak erakartzen dituena) eta nahastearen tenperatura baxuak izatea izan dira.

11. Irudia ***BEHATUTAKO GORABEHEREN ARGAZKI BATZUK***




3.3 PRENTSA OHARRAK

Kanpainaren hasieran eta bukaeran, kanpainaren berri emateko bi prentsa ohar prestatu dira. Izan ere, hasierako prentsa oharra irailean helarazi zitzaion udal elkarteari eta azkenengoa, aldiz, ekainean bidali zitzaion.

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK

- Orokorrean, praktikoak izan diren jarduerak (hitzaldiak, tailerrak, bisitak) ikasle eta irakasleen artean gustukoak izan direla ondorioztatzen da ikasturtean zehar jasotako iritziengatik. Horrela, konpostajearen laborategiko entseguak eta garbiguneetara bisitek ikasleen jakinmina piztu eta ezagutzak era aktibo batean berenganatzea eragin dute.
- Bereziki azpimarratu nahi da ikasgeletatik kanpo egiten diren bisiten garrantzia, garbiguneko bisita kasu. Izan ere, bisita hori ikasleen artean eskualdeko hondakinen kudeaketa nola egiten den era praktiko eta dinamikoan ezagutzea ahalbidetu du.
- Orokorrean, ikastetxeetako konposta guneek ez dituzte gorabehera larririk aurkeztu ikasturtean zehar. Gehien detektatutako gorabehera biohondakin freskoak ez estaltzea izan da. Honen arrazoia irakasle batzuek konposta egiteko jarraibideen ezagutza falta dutela izan daiteke. Era berean, ikastetxe batzuetan konpostaje prozesua emateko beharrezko tenperaturak (altuak) lortzeko arazoak daudela ikusi da. Hori, eskola gehienek organiko ekarpen gutxi egiten dutelako da, apenas ekarpen bat astero, alegia.